

Arrasate

P R E S S U

1999ko
Martxoak 5
442. zenb.

Gaztetearen geroa?



IKUSPEGIA: IKER BARANDIARAN • EUREN IKUSPUNTUTIK: MALEN ERRASTI
KULTURA: BEGOÑA GARAIZABAL • KIROL ELKARRIZKETA: OSKAR GAVILAN



Plastikozko ontziak



Latak



Tetrabrikak



...zure esku dago

“Bueltaka - Bueltaka Birziklatuz”

Datozen egunetan honelako 127 edukiontzi jarriko ditugu Deba Garaian zehar. Zure laguntzarekin ingurugiroa zaintzeko bide horretan urrats handia emango dugu.

Eta horrela, lehengai eta energia gutxiago beharko dugu, kutsadura eta zaborrak ere gutxitu egingo dira, eta jakina, zaborteziak ere denbora luzegorako izango ditugu.

Gutxitu hondakinak, berriz erabili eta birzikla itzazu

Guztion mesedetan izango da



DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DEL ALTO DEBA

Informazioa vs deformazioa

Egunkari *progre* eta ziztrin baten azalean honako berria aurkitu dut. Izenburuak honela dio: "Bi gazte metroak harrapatu ditu, honen bidean porroak erretzen zeudela". Haietako bat hil egin zen, eta bestea larri zaurituta dago. Argi dago trenbide edo metrobide batean egotea ez dela ohikoa, baina aipatu beharra dago istripuaren kokagunea ez zegoela lur azpian. Zorionez edo tamalez, Bilboko metroan kostata gertatuko litzateke antzeko zerbait, ia erabiltzaileak baino gehiago baitira, bertan "lanean" dauden Protecsa-ko sasipoliziak. Madrilekoan, agian bestelako egoera biziko da.



Iker Barandiaran

egunkari batean plazaratu dute; eta azalean bertan, baina apur bat txikiago, azalpen gehiago datoz: "...Hildakoak porro bat zeukan hatzamar artean", hain zuzen ere. Hatxis honen maila ziurtatuko ote zuten? Lagun batek esan didanez, irratiren batek ere tratamendu berbera eman dio berriari, jazoeran porroari izaera traszendental

edo pisuzkoa emanez. Zein da berri honen tratamendu zehatzaren helburua, porroen kontsumoa gaitzestea, satanizatzea? Zer pentsatuko ote dute senitartekoe? Ezjakintasunean bizi badira, hauei botako diete errua. Zein arriskutsuak diren drogak!

Sentsazionalismo gezurti eta lotsagabe honek izugarriko nazka ematen dit.

Dagoeneko, azken urteetan hainbat talderen lanaren ondorioz, drogen normalizazioaren aldeko

hainbat pausu eman dira, gobernariak honi buruzko informazioa emateari uko egiten jarraitzen dioten arren. Zoritzarrez, aipatutako berri sentsazionalistaren tankerakoek, lorpen hauek guztiak bertan behera bota nahi dituzte. Beharrezkoa izango da, berriz ere droga legal eta legez kanpokoen arteko alderaketa zein ikerketak plazaratzea, hau da, hauek bereizten dituen hipokresia interesatua salatzea? Seguruenik bai.

Gogora dezagun baita ere, antzeko sentsazionalismo merkea atarian ere badugula. Hilabete dexente direla, *Arrasate Pressen* bertan, hirugarren orrialdean eta "Iturri onetik" ataltxoaren barruan, herriko gazteek ikasbidaietarako hatxisean hainbat diru kopuru gastatzen zutela, aipatzen baitzen. Bakoitza bereaz arduradadila, *kopon*; eta honelako estatistika edo datuak bota baino lehen, azter ditzala beste sustantzia bedekinkatu batzuen kontsumoak (alkohola...) zenbaterainokoak diren, hauen kalteak eta bereziki testuinguruak zein beste milaka faktore.

Azalpen hauek garrantzi handirik ez dutela eta, goazen harira. Aipatutako izenburu hau, espainiar estatu osoan saltzen den

Sentsazionalismo gezurti eta lotsagabeak izugarriko nazka ematen dit

"Nire bizitza bizipen txikiz osatua dago. Denak batuta zertxobait dira; niretzat asko"

Jabier Zubizarreta

400

langile kenduko ditu Fagor Elektratresnak

Fagor Elektratresnak aurten amaituko du produkzio prozesuarekin zuzenean loturik ez dauden 400 lanpostu kentzeko plana. Gehienak zerbitzu informatikokoak eta administrazioakoak izango dira. Neurri honekin 1.400 milioi peze-ta aurreratuko ditu.

ITURRI ONETIK

Nora goaz oporretan?

Laster etorriko dira Aste Santuko oporrak. Baina nora joaten gara oporretan, eta zeren bila? Hona hemen Eroski Bidaiak agentziak eman digun erantzuna.

Aste Santuan arrasatearrok eguzki bila joaten omen gara eta Kanariak, Mallorca, Benidorm, Costa del Sol eta Salou dira helbururik bisitatuenak.

Udan, berriz, denetik egiten dugu: eguzkia, mendia eta bidaiaren plazerra bilatzen omen dugu. Iberiar penintsula, Karibe, Mexiko, EEBB eta Europan zehar ibiltzen gara maizenik.

Gabonetan batzuek eguzkia (Kanariak eta Karibe) eta beste batzuek mendia (Pirinioak eta Alpeak) bilatzen ditugu.

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Joxe Aranzabal. Kazetariak: Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. Publizitate: Nerea Zallo, Arantza Lagunilla. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92).
Administrazioa: Agurtzane Gainzarain (Tel.: 943 71 23 90) Diseinua: Txos Azurmendi. Asteburuetako berriemak: Gontzal Landa. Bekaduna: Anartz Agirre. Kolaboratzaileak: Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. Banaketa arduraduna: Jasne Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.400. Logo-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Marijo Deogracias & Txos Azurmendi.

Arrasateko Udaleren laguntza
Gipuzkoako Foru Aldundiararen laguntza
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

MARTXOAK 8: EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Arrasateko emakumeak marginazio eta esplotazio egoera lazgarrian gaude. Eustaten datuen arabera, 16 urtetik gorako hamar emakume arrasatearretik hiruk bakarrik dugu enplegua. 1.164 langabetik 795 emakumeak gara. Beraz, gehienak langabezia gaude, autoesplotazioan, ekonomia murgilduan soldata miserableak jasaten edo etxean etxeokonde gisa debalde lan egiten, inolako onespenez sozialik gabe eta besteengana dependentsia sozial eta afektiboan gaizki bizitzen.

Arrasateko emakumeok bizitza antidemokratiko hau ekiditen duten politika demokratikoak gauzatzea nahi dugu. Baina egiazko akzio plana behar du izan, edukinarekin. Ez marketinik, espediente betetzerik, denbora irabazterik, egiten den itxura egin, ezer ere ez egiteko... botere irizpideak erabiliz, Arrasateko emakumeen bizitzaren hobekuntzarekin zerikusirik ez duten politikak era autoritario eta despotikoan inposatzeko. Politika hauek zerikusi zuzena dute hirutariokoaren interes elektoral eta partidistekin. Aski da gure bizitzarekin jolasteaz. Aski da gu pitxar gisa erabiltzea. Sasidemokrazia honi ez!

Gaur egun bizi garen unean, gure herrian distentsioa, akordioa, negoziazioa bultzatzen gabiltza. "Soluzioaren bideak" ari gara bideratzen elkarlanean. Emakumeok ere

elkarlana aldarrikatzen dugu eta elkar kopartizazioa Arrasateko emakumeen bizitza, esku-bideak eta boterea hobetzeko. Horretarako ezinbestekoa da emakumeen protagonismoa, emakumeen partehartze sozial eta politikoa. Eta ezinbestekoa da jarrera inpositibo eta autoritarioak ezabatzea.

Bide honetan Lizarrar-Garazi bitarteko garrantzitsua da. Euskaldunok aske eta demokratikoki hitz egin eta erabakiak hartzeko marko bat da, hain zuzen ere. Beraz, ezinbestekoa ikusten dugu euskaldun emakumeok bertako partaide zuzenak izatea. Horrela, giza partaide garenez, emakumeon eskubideak barne izatea planteiatu behar dugu, gure ahotsa eta presentzia gizartearen eremu guztietara eramanez.

Arrasateko Egizan

ETORKIZUNA EUSKARAZ

Azken aldian Euskal Herrian Euskaraz taldea ezaguna egin da zenbait komunikabideren bitartez. Ezagun egitearen arrazoia, ordea, ez da guk nahi genukeena. Epaile zein ikastetxei "mehatxu" egin omen diegu geure hizkuntza den euskara normalizatzeko besterik eskatzen ez dugunean.

Gutun honen bitartez mondragoetarroi azaldu nahi dizuegu ikastetxeen inguruan edo hobe esan, erdal erduei dago kienez egiten ari garena. Jakina da pertsona batek lanean euskara erabili ahal izateko, aurretik buruturiko ikasketak eus-

karaz izatea oso baliagarria dela. Horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu egun ikasketak oro euskaraz egiteko esku-bidea izatea. Derrigorrezko Hezkuntza delakoa Arrasaten behinik behin euskaraz egiteko aukera badago ere, hortik aurrerakoak arazo gehiago sortarazten dizkigu euskaldunoi. Dela unibertitate ikasketak edo lanbide heziketa, ikasle euskaldunoi ez zaigu gure esku-bidea betetzeko aukerarik ematen. Haurtzaroen euskaraz ikasi izan arren, gerora ez dugu aukera honekin segitzeko paradirik. Honek arazo handi bat dakar; erdaraz ikasiz gero, lanean ezin izanen dugu gure hizkuntza behar bezala erabili. Eta honela ezin inoiz gure herriaren etorkizuna euskaraz eraiki.

Erdal erduek dakarten arazoa sakon aztertu ondoren, zenbait egin beharra dagoela ikusi dugu Euskal Herrian Euskaraz taldekook. Honela, A erduarekin jarraitzen duten ikastetxeetako zuzendariak, alderdi politikoei eta alkateari berari gutun bat helarazi diegu. Eskutitz honen bidez, pertsona zein erakunde ezberdin hauei A erdua legez kanpo-

koa, baztertzaila eta iruzuregilea dela jakinarazi diegu. Gure iritzia azaldu ondoren, beraienaren zain gelditzen garela esaten zaie eta azkenik, etorkizuna euskaraz egin ahal izateko eurek izugarrizko erantzukizuna dutela esaten diegu.

Gure iritziz, hau guztia ez da mehatxu bat. Egoeraren berri eman eta zenbait egitera bultzatzen ditugu soilik erakunde zein pertsona hauek. Aipatutako hauek, aldiz, ez dira gure etorkizunaren erantzule bakarrik izango; euskararen etorkizuna denon esku dago!

Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 5
 - Gauz eta egunez: Ruiz, Maala
- Larunbata, 6
 - Gauz eta egunez: Morales, San Andres
- Igandea, 7
 - Gauz eta egunez: Azkoaga, Ferrerias
- Astelehena, 8
 - Gauz eta egunez: Español, Iturriotz
- Asteartea, 9
 - Gauz eta egunez: Korkuera, Musakola
- Asteazkena, 10
 - Gauz eta egunez: Irizar, Erguin
- Osteguna, 11
 - Gauz eta egunez: Amezua, Santa Marina.

Telefono berriak

Arrasate Komunikabideak elkarteak telefono berriak ditu joan den astelehenetik hasita. Hauek dituzue zenbaki berriak:

- Arrasate Press 943 71 25 11
- ATB 943 71 23 93
- Administrazioa 943 71 23 90
- Publizitatea 943 71 23 91

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiralean Setatik 8etara.
Tel.: 943 79 26 99

Sili Sili
%50eko beherapenak
Obrak direla eta, Ferrerias kaleko 28.ean gaude

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

Zer egingo zenuke gaztetxearekin?

Ospital zaharrean kultura etxea egingo dela eta, erabakitzeke dago zer gertatuko den gaztetxearekin.



Xabi Llodio
(17 urte)
Ikaslea

Gazteok erabakiko dugu guretzat onena den kultura zein den. Dagoen lekuan segitu beharko luke.




Asier Ibarrondo
(17 urte)
Ikaslea

Ondo dago dagoen lekuan. Tabernakere inguruan diti. Handia da eta tokia du kontzertuak eta, emateko.



Nati Urrutia
(67 urte)
Erretiratua

Udalak hobetoen pentsatzen duena egin dezala. Lekuari buruz, ken dezatela hemen eta.



Agustin Uribarren
(40 urte)
Langilea

Dagoen tokian segitu beharko luke. Dirurik badago, berritu dezatela. Niri gustatzen zaizkit horrelako gauzak.



Iñaki Inda
(63 urte)
Erretiratua

Egingo den horretan kultura bultzatu behar bada, ondo. Gazteria moralmente galtzeko izan behar bada, berriz, hori ez nuke nahi.



Arantxa Urkijo
(57 urte)
Etxekoandre

Nik nahiago dut kultura etxea gaztetxea baino. Gainera lekua oso egokia da kultura etxea egiteko.



Leire Lardizabal
(19 urte)
Ikaslea

Onena izango litzateke dagoen tokian segitzea. Ez nuke nahi hortik bota ditzaten.



Maria Lazkano
(30 urte)
Langilea

Beharrezkoa da toki bat izatea jendea biltzeko. Hori botatzen badute, egin dezatela beste bat, ahal dela erdigunean.

TOKION
ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN SALMENTA
Erdiko Kale, 7
Tel.: 943 79 91 64 • ARRASATE

Lore
Lurrindegia
Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 943 79 52 50

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 943 79 91 84
ARETXABALETA

Altzariak
Diseinua
Apainteta
M ARENAZA
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

Arrasate

LANAK

SANTA TERESAN

Santa Teresako 18, 20 eta 22 zenbakietan eta Doneztebe Portuko kalean saneamendu lanak egiten ari dira.

OTALORAN


Pilotalekua egiteko lanak.

KONTZEZINON


Etxeak egiteko lanak.

FERRERIASEN

24 eta 26 zenbakietan etxeak konpontzeko lanak.



Eguraldiaren aurreikuspena



OSTIRALA 5

Eguraldi kaskarra izango dugu. Hoztu egingo du eta euria ere egingo du.



LARUNBATA 6

Asteburu eskasa izango da. Ipar haizeak temperatura jaitsiera ekarriko du. Euria ere tarteka egingo du.



IGANDEA 7

Larunbatekoaren antzekoa. Hotza, haizea eta euria. Tenporek adierazi bezala, eguraldi nahasia.

Ilargia



Ilbehera

Martxoaren 10ean, asteazkena, ilbehera izango dugu.

Mezak

Parrokia

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (euskaraz)
10:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (erdaraz)
19:00 (elebiduna)

Uribarri

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:

11:30 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

San Andres

Ostiralean
18:30 (Otoitz ordua)

Larunbatean

18:30 (Bezpera abestiak)
19:00 (elebiduna)

Igandean

10:00 (erdaraz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Santa Teresa


Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean

10:30 (erdaraz)
11:30 eta San Isidron (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila

%99,9



Tenporak

Otsailaren 24, 26 eta 27an izan ziren udaberriko tenporak. Pello Zabalaren ustez, udaberri nahasia izango dugu. Otsailaren 24an, hego haizea agertu zen, goiza gorri-gorri eta fronte beroa izan genituen. Hego haizea, euria, eguzkia, mendietan elurra eta kaskabarra... Udaberri aldakorra. Hurrengo tenporak, Mendekostea pasatu eta gero.




**ALMEN
IKASTOLA**



**SAN FRANTZISKO XABIER
IKASTOLA**




**SAN VIATOR
IKASTOLA**




Umezaintza
HEZKUNTZA - ESCOLA



HEZIBIDEKO Ikastolen Apostua Batxilergo eta Heziketa Zikloetan ere bai!



Biteri Etorbidea, 15 behea
Tel: 943 79 88 75
20500 ARRASATE

Zatoz Informatzera! 

HEZIBIDE
Hezkuntza Taldea

5 ostirala

■ ZINEA

Mas allá de los sueños, Alai zinema, 19:00etan eta 22:00etan.

■ KONTZERTUA JAMEN

Bergarako Jam aretoan *Dictators* eta *The Hot Dogs* taldeak arituko dira gaueko 22:00etatik aurrera. Sarrera, 2.000 pta.

6 larunbata

■ ZINEA

The General, Alai zinema, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ ERAKUSKETA
ETA AZOKA

Emakumearen egunerako antolatu diren ekitaldien barruan, baserritar eta eskulangileen azoka eta erakusketa antolatu dira Sebero Altuben, goizeko 11:00etatik 14:00etara.

■ SAGARDO EGUNA

AEKK, 3. sagardo eguna antolatu du Astigarragan. 12:30etan bakailao lehiaketa, 13:00etan trikitilariak eta bertsolariak, 13:30etan bakailao lehiaketako sari banaketa, 14:00etan bazkaria eta 18:00etan musika emanaldia, *Txatunga Bembe, Morau, Joxe Ripiau, Mundiñano anaia* eta Korrika I Iren bideoaren emanaldia eta abestia zuzenean. Gaueko ordubatean amaituko da jaia.

■ EUSKAL PRESOEN ALDE

"Herriaren borondatea, euskal presoak Euskal Herri" leloarekin kale agerraldia deitu dute herriko 38 elkarte politikok eta kulturek. Kale agerraldia 18:30etan izango da, herriko plazan.

■ KORRIKAREN KONTZERTUA

Korrika kulturalaren barruan, *Zea Mays, Dantzut, Kash Bat, Anari, Labrit Zabal*a eta *2Kate* taldeak arituko dira Musakolako kiroldegian, gaueko 22:30etatik aurrera.

■ JAM ARETOAN

The Animals talde historikoa arituko da Bergarako Jam aretoan, gaueko 22:00etatik aurrera.

7 igandea

■ ZINEA

The General, Alai zinema, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ MENDI IRTEERA

Besaidek antolatu duen mendi irteerako partaideak goizeko 07:00etan aterako dira Garibaitik. Irteera hau ere Euskal Mendizale Federazioaren 75. urteurreneko ospakizunen barruan sartzen da.

■ AFIZIONATUEN IRTEERA

Arrasateko txirrindulari afizionatuak denboraldiko lehenengo irteera egingo dute. Arrasate-Aramaio-Arrasate-Arlaban-Dorletako Ama-Arrasate egingo dute. Irteera goizeko 10:00etan izango da, Pablo Urangako egoitzatik.

■ ABERE HAZLEEN BILERA

Deba Garaiko Abere Hazleen elkarteak bilera egingo du Arrasateko udaletxean. Lehenengo deialdia goizeko 11:00etan izango da eta bigarrena, berriz, 12:00etan. Urteko ekintzen balantzea eta 1998ko elkartearen jokaera landuko dituzte, besteak beste.

■ ANTZERKI SAIOA

"Mujeres al rojo vivo" antzerki saioa eskainiko du *Legaleon* antzerki taldeak Amaia antzokian, arratsaldeko 19:30etan. Sarrera 500 pta kostako da (gazte txartelarekin, 400).

8 astelehena

■ ZINEA

The General, Alai zinema, 19:00etan eta 21:30etan.

■ ZALDIBARKOEN BILERA

Zaldibarko futbito txapelketako bigarren aldira pasatzen diren taldeek bilera izango dute Monterronen, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.



Emakumearen eguna

Emakumearen nazioarteko eguna da. Informazio Bulegoak, Ekinek, Emakume Heziketarako zentruak eta Erdu-AE-ak antolatzen dituzte "Demokrazia ere, emakumeak" leloarekin. Arrasate Irratian, "Emakumea XXI. mendea" antzerki saioa 17:00etan, "Emakumea zahartzen" antzerki saioa 19:30etan, berriz, kale agerraldia

9

asteartea

■ ZINEA

The General, Alai zine-
man, 19:00etan eta 21:30etan.

■ HAURENTZAKO
SAIOAK

Behi Bi's txotxongilo tal-
deak "Printzesa borrokalaria"
ikuskitzuna eskainiko du
Monterroneko haurren txo-
koan, arratsaldeko 17:30etan,
sei eta zorti urte bitarteko
haurrentzat.

■ CIM-EN

25. URTEURRENA

Arrasateko Hizkuntza
Eskolak antzerki saioa anto-
latu du bere 25. urteurrena
ospatzeko antolatu dituen eki-
taldien barruan. *Drama Group*
Europe antzerki taldeak "The
Adventures of Huckleberry
Finn" antzezlan eskainiko
du Amaia antzokian, arra-
tsaldeko 19:30etan.



eta, Udal liburutegiak, Sexu
leen Asanbladak, Gizarte eta Familia
uskaltegiak hainbat ekitaldi antolatu
tzat" leloarekin. Goizeko 11:00etan,
ndeian" irriati saioa egingo da.
an gizarte" izenburuko hitzaldia
hasiko da Sebero Altuben.

10

asteazkena

■ LESBIANISMOA
MINTZAGAI

Uribarri Alberdik "Les-
bianismoa eta emakumeen
mugimendua" izenburuko
hitzaldia eskainiko du Mon-
terronen, arratsaldeko
19:00etan.

■ HITZALDIA ALMENEN

"Zer ikasi? aukeraketak
planteiatzen dituen arazoan
aurrean, nola jokatu?" izena
duen hitzaldia eskainiko du
Migel Aierbek Almeneko
ikastolan, arratsaldeko
18:00etan.

11

osteguna

■ ZINE EMANALDIA

Haman, El baño turco
filma eskainiko dute Amaia
antzokian, gaueko 21:30eta-
tik aurrera. Sarrera 450 pta
kostako da (gazte txartelare-
kin, berriz, 400).

■ ELBARRITUEN ALDE

Herriko elbarritu-
entzako leku bila ari dira
herriko hainbat lagun. Hori
dela eta, sinadura bilketa
egiten hasi dira.
Interesatuak tabernetan
lagatako orrietan sina
dezakete edo Amaia
Mendikuterekin
harremanetan jarriz 943 78
13 67 (Iana) edo 943 79
04 54 zenbakietan.

■ ASERTIBITATE ETA
KOMUNIKAZIO IKASTAROA

Udaleko emakume
Sailak "Asertibitate eta
komunikazio ikastaroa"
antolatu du martxoaren
16tik ekainera bitartean.
Izen ematea martxoaren
12an amaituko da. Berri
gehiago 943 790 900
zenbakian.

■ ESKI ZEHARKALDIA

Besaidek eski
zeharkaldia antolatu du
martxoaren 13 eta 14rako.
Izen ematea martxoaren
8an eta 9an izango da,
Besaideren egoitzan,
arratsaldeko 19:30etatik
20:30etara. Eski zehar-
kaldia, berriz, Estaing
Bailarara (Bearn) izango
da.

■ MENDI IRTEERA

Besaidek mendi irteera
antolatu du Palentzian
dagoen Alto Carrionera
martxoaren 19tik 21era
bitartean. Izen ematea
martxoaren 9, 10 eta 11n
egin ahal izango da
Besaideren egoitzan,
arratsaldeko 19:30etatik
20:30etara.

■ 60KO KINTOEI

Martxoaren 13an
egingo dute kinto eguna
60koek. 12:30etan meza
izango dute San Frantzisko
elizan eta bazkaria, berriz,
San Andres auzoko
Irantsube elkartearen egingo
dute. Izena emateko,
Carmelo Amozarrain (943
79 59 29), Adolfo Gomez
(943 79 19 73), German
Moreno (943 79 61 64)
edo Santos Hernandezen
(943 79 31 83)
zenbakietara dei daiteke.

■ EMAKUMEEN
ETA GIZONEN DESIOAK

Agurtzane Ormaza eta
Garbiñe Merino izango dira
"Emakumeak eta gizonak,
nolako desioak nolako
kontraesanak"
izenburupean Emakume
Sailak antolatu duen
sexualitate lantegioko
hizlariak. Lantegiok
apirilaren 20-27 bitartean
eta maiatzaren 4-11
bitartean izango dira. Izen
ematea Gazte Bulegoan
eta Emakume Sailean,
martxoaren 31 baino
lehen.

Horrez gain,
martxoaren 5ean, ostirala,
hitzaldiak eskainiko dira
gai hauen inguruan.

USTEAK USTE

Txoria eta dragoia lagun

Joan den astean EITBko ordezkari-tza bat izan genuen Arrasate Komunikabideak bisitatzeko. Bost hilabete lehenago Arkoko hiru lagun izan ginen lurretan zuzendari orokorrarekin hitz egiten. Bisita hau, bada, haren ondorioa izan zen.

Arkoren sail guztiak bisitatu zituzten, baina ulertzekoa den moduan, bereziki ATB ikusi nahi izan zuten. Instalazioak, programazioa, teknologia, lana egiteko modua, profesionalak... dena ikusteko parada izan zuten.

Harrituta joan ziren Arrasaten maila guztietan dagoen bizi-tasunarekin, Arkok bere baliabide urriei ateratzen dien etekinarekin eta egiten duen lanaren mailarekin.

Zorionez, joana da lurretan ATB zaindu beharreko kompetentzia kezkarri bezala ikusten zuten garaia. Lehiakideak gara, baina horren gainetik argi dugu elkarlanerako eremu zabala dugula.

Aro berri bat ireki da, beraz, telebista bien arteko harremanetan. Datozen egunetan zehaztuz joango gara elkarlanaren nondik norakoak.

Joxe Aranzabal



Aukera berdintasuna hizpide

* Malen Errasti

Azken sei urteotan egin dugun lanik gehiena bideratu da udalean eta udal politikan emakumea bizi-tza sozialean berdintasun egoeran integratzeko jarduerak bat sortzera.

Uste genuen udala, herritarren behar eta interesetatik hurbilen dagoen erakundea den aldetik, eremurik egokiena zela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko.

Gure ustez, udal politikak honako bi gai hauei erantzun behar zien: behar duten emakumeei laguntza, informazioa eta arreta eskaintzea, hainbat zerbitzu lanean jarrita; eta emakumearen aldeko politika integrala modu eraginkorrean bultzatzea, udaleko gestio arlo guztiak sarturik eta desberdintasunaren prebentzioa eta emakumearen gizarte sustapena barne hartuta.

Jakina denez, horretarako gestio tresna zehatzak, koordinazioa eta giza

baliabide eta material egokiak behar dira.

Asmo horiekin sortu ziren Emakumearen Udal Kontseilua eta Emakumearen Batzordea, arloko teknikariarekin eta aurrekontu jakin batez hornituta.

Orduz geroztik, emakumei erantzuteko hainbat zerbitzu jarri dira abian eta zenbait lan egin dira emakumeak Arrasaten bizi duen errealitatea hobeto ezagutzeko.

Horren guztiaren osagarri Aukera Berdintasunerako Lehen Plana onetsi zen 1997ko uztailean. Plan horren helburua udalaren lana eta ekintzak bideratzea zen, baita lau urterako jarduerak gida gisa baliagarri izatea ere.

“ Arrasate aukera polita galtzen ari da Berdintasun Planaren helburuetan aurrera egiteko ”

Gure iritziz plan honen burutzapena funtsezko hiru puntutan oinarritzen da:

- Emakumearen Sailak nahiko langile egonkor izatea.
- Lan planak gauzatzeko besteko aurrekontua izatea.
- Plan horretako jardueretan emakumezkoen parte-hartzea sustatzea, bai pertsonak eta taldeak.

Plan honek hilabeteak daramatza geldi.

Udalaren gogoratu taldeak (EAJ, EA, PSOE) ez du sailleko teknikari postu finkoa atera nahi eta praktiketako kontratuen deialdiak egiten segitzen du (bi urte eta ezin da pertsona bera aurkeztu), azken kontratazioa egiteko arazoak egon diren arren. Horren ondorioz, ezinezkoa da epe luzerako sorturiko edozein planek jarraipena izatea.

Politika horren eta jarraera erabat antidemokratiko baten ondorioz, emakume talde bik batzordetik alde egin dugu, baina horrek ez du inolako hausnarketarik eragin talde politiko nagusietan.

Arrasate, berdintasun plana onartzen aitzindaria izan zen arren, aukera polita galtzen ari da gaur bertako helburuetan aurrera egiteko.

Emakumeen alde jarduteko era berriak behar dira, bai eremu publikoan bai familia erantzukizunekin zerikusia duten esparru guztietan.

* Arrasateko Emakumeen Asanblada

URRATS
AHOLKULARITZA
 GARIBAI, 3
 Tel.: 943 79 87 74
 ARRASATE

“PAL”
burdindegia,
brikolage
eta tresneria
 Uribarri etorbidea, 3
 Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

Spek
Denda

 Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

ARETXABALETA

Eskola plazara

1 Herriko plazan dagoen udaletxe zaharreko eraikuntza Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolak emateko egokituko da. Orain arte, beheko partea soilik erabiltzen zen eskolaurrea eta DBHko lantegiak emateko. Beste eskola guztiak Kurtzebarri Eskolan ematen ziren. Baina Kurtzebarri estu daudela eta, orain udaletxe zaharreko eraikuntzaren beste hiru solairuak ere eskolak emateko erabiltzea hitzartu dute. Eusko Jaurlaritzak egingo ditu egokitze lanak. Aretxabaletan aurreko hasiko direla espero dute.

OÑATI

Arantzazu bi liburutan

2 Arantzazuko Santutegia hizpide da plazaratu diren bi liburu berritan. Batetik, santutegian dauden antzinako liburuen katalogo bat idatzi du hango Candido Zubizarreta fraideak. "Catalogo de incunables e impresos del siglo XVI de los conventos franciscanos de Arantzazu y Zarautz" izenburupean, bes-



teak beste, moldiztegia asmatu aurretik idatzitako liburuen berri ematen du libururak. Bestetik, "Euskal Historialariak eta Frantziskotarrak. Azterketa historiografikoa" izena duen liburua ere plazaratu da. Joseba Intxaus-

ti da idazlea eta historialari ezagunen inguruan idatzitako liburua plazaratu du. Hone-la, besteak beste, Esteban de Garibairen bizimodua aztertzen du, honek santutegiari buruz ematen duen informazioa jasoz.

BERGARA

Lagundiak 200 urte

3 1799. urtean Mariaren Lagundia ikastetxe-komentua sortu zen. Beraz, berrehun urte bete berri ditu. Hori dela eta, hainbat ospakizun ekitaldi egiten ari dira joan zen hilaren hasieratik. Hilabete honi dagokionez, datorren 13an Bergara eta Donostiako Mariaren Lagundiko ikasleen abesbatzekin kontzertua izango da ikastolako elizan, iluntzeko 19:00etan.

Hurrengo ekitaldia, martxoaren 27an izango da, herriko Aritzeta abesbatzaren saioarekin.

ELGETA

Euskal Herriko Txapelketa

4 Elgetan jokatzeko den lau t'erdiko txapelketaren izena aldatzekotan dabil. Euskal Herriko Pilota Federakuntza, Elgetako txapelketa antolatzen duen Oskarbi taldearekin harremanetan dabil. Hemenetik aurrera, Euskal Herriko Txapelketa izena ipini nahi diote eta oraingoz, behintzat, ez dago eragozpenik.



Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia
Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE

Hobetzeko
duzun guztia
eman behar duzu.



OPEL VECTRA. ARTEA MUGIMENDUAN



Arkauzen kanporatzea, legez kanpokoa

Frantziako auzitegi batek, Pauekoak, legez kanpokotzat jo du Frantziako gobernua Josu Arkauz mondragoetarra Espainiako poliziaren eskuetan jarri izana. Epaiak esan duenez, Arkauzen kanporatzea "botere gehiegikeria" izan zen. Izan ere, Espainiako gobernua ez zuen estradizio eskaerarik.

Josu Arkauzek bukatua zuen Parisko Korrekzio Auzitegiak ezarria zion sei urteko zigorra, baina libre utzi partez, Frantziako gobernua La Junquerara eraman zuen 1997ko urtarrilaren 13an eta Goardia Zibilaren eskuetan utzi zuen. Arkauz lur jota zegoen, torturen beldur, 30 eguneko gose greba eta astebeteko egarri greba eginak baitzituen.

Komisaldegian tratatu txarrrak sufritu izana salatu zuen gero Arkauzek Espainiako epaileen aurrean. Ondoren, hainbat kasutan auzipetu dute eta sekulako zigorra ezarri diote. Arkauzen familiak begi onez eta etsipenez hartu du epaia, jakin bai baitaki ez duela Josuren egoera aldatuko.

Arrasaten Mujika garaile

Jose Mari Mujikak irabazi zituen Gipuzkoako alduen nagusigai izateko barne hauteskundeak Arrasaten, nahiz eta Gipuzkoan Guillermo Etxenikak irabazi.

PSE-EEko 34 alderdikidek bozkatu zuten Mondragoen. 17k Jose Luis Mujikari eman zioten botoa, 14k Etxenikeri eta 3k Elorzari. Arrasateko afiliatuen %4k parte hartu zuen bozketan.



Pasa den ostegunean Alkartetxean egin zuten bileran gehiengo handiak baietz esan zion proposamenari.

EA eta EAJ, batera

Eusko Alkartasuna eta Eusko Alderdi Jeltzalea batera joango dira ekainean Arrasaten egingo diren udal hauteskundeetan.

Pasa den ostegunean EAK ezohiko batzarra egin zuen zerrenda bateratua aurkezteko proposamena aztertzeko. Luis Etxeberriarteun EAKo presidenteak esan zuenez, gehiengo handiak eman zion baietza proposamenari.

Oraindik ez dute jakinarazi zerrendaburua nor izango den, baina Jose Mari Loiti alkateak ATBri adierazita koaren arabera, bera izan liteke zerrendaburua.

ALDERDIEN IRITZIAK

Arrasateko beste alderdiek ere adierazi dute iritzia albiste honen aurrean. Herri Batasunako Juan Luis Arexola-leibaren ustez, EAK eta EAJk eskubide osoa dute batera joateko. Dena dela, HB hor sartuko den edo ez galdetzean, zera esan zuen, Lizarragarazi ituna sinatu izanak ez duela esan nahi hauteskundeetan elkarrekin joan behar direnik.


Ignacio Jimeno Arrasateko PSE-EEko presidentearen ustez, EA eta EAJren arteko zerrenda bateratua kaltegarria izango da beste alder-

di guztientzat, D'Hont legeak alderdi handiak saritzen dituelako. Bere ustez, arraro samarra da hauteskundeen aurretik alderdi abertzaleak ondo konpontzen direla ikusi eta gero, EAK eta EAJk zerrenda bateratua egin eta hauteskundeetan HBren aurka doazela ikustea.

Ezker Batua alderdiko Angel Tijeroren esanetan, ikusita zegoen bateratze hau gertatuko zela. Euskal Herrian bizitzen ari garen egoera historiko honetan botorik ez galtzea lortu nahi dutelako, batez ere Eusko Alkartasunak.

Pedro Mertxan irtenbide bila

Pedro Mertxan "Papi" Gari bairen monumentuaren ondoan dago kanpin denda batean larunbata ezkerre, bere egoerari irtenbidea eskatuz. Dagoeneko bi mila sinadura jaso dira eta pasa den larunbatean bere aldeko kale agerraldia egin zen.



Laurak bat Hezibideren egitasmoa onartzeko orduan

Hezibideren proiektua onartu egin zuten pasa den astean elkarteak osatzen duten ikastolako bazkideek. Ikastola guztietan baiezko erantzuna nagusitu zen, eta alde handiz gainera. Beraz, orain hiruzpalau urte diseinatzen hasitako egitasmo honek aurrera egingo du. Funtsean bi aldaketa nagusi egingo dira. Bate-tik, "Lehen Hitz" kooperatiba sortuko da. Honek 0 eta 6 urte bitarteko haurrentzako hezkuntza eskainiko du.

LEHEN HITZ

San Viator eta San Frantzisko Xabier ikastolak elkartu egingo dira Hezibideren egitasmoaren arabera. Era berean, irailean San Viator ikastolak 2-3 urteko haurrentza-



Almen ikastolan ostegunean egin zuten gai hau aztertze-ko bilera.

ko bi gela irekiko ditu: bata bi urtekoentzat eta bestea hiru-koentzat. Itsaso Nuin, San Viator ikastolako zuzendariak azaldu digunez, bi eta hiru urteko haurren gela horiek dagoeneko beteta daude.

Honetaz gain, Umezaintzak, Almenek eta San Frantzisko Xabierrek lehengo

eskaintzarekin segituko dute.

Bigarren aldaketa nagusia zera izango da: "Lehen Hitz" kooperatiba sartzen diren haur horiek hemendik bospa-sei urtera bi aukera izatea: Arrasate Ikastola, hau da, San Viator eta San Frantzisko Xabierrek osatuko duten ikastola edo Almen.



ETBren bisita ATBra

Iurretatik bisita etorri zitzaigun joan den astean. Maite Iturbe eta Mikel Agirre Euskal Telebistako produkzio arduradunak Arkoko arduradunekin izan ziren, instalazioak bisitatzen. Ondoren bilera egin zuten, aurrera begira erakunde bien artean egin daitekeen elkarlana zehazteko. Hauxe izan da erakunde bietako ordezkariak egin duten bigarren bilera

Fagor sarituta

Fagor Automation enpresak Urteko Esportazio Enpresa onenaren saria irabazi du. Nazioartekotasuna bultzatzeko eta esportazioa bideratzeko egin duen lana saritu diote hain zuzen ere. Gipuzkoako Merkataritza Ganberak Industria Onena saritzeko urtero egiten dituen honelako sari banaketak. Oraingoa zazpigarren aldia izan da.

Fagor enpresaz gain, Bergarako Fit Automocion lan-tegiak ere lortu du beste sari bat, kasu honetan, kanpo inbertsioaren saria.

Leku izenak

Dagoeneko Arrasaten badago herriko leku izenen planoak. Guztira 400 izen jasotzen ditu. Tartean baserrien, txabolen, elizen, mendien eta abarren izenak. Herriko leku izen garrantzitsuenak sartu nahi izan dituzte planoan, besteak baztertuz. Mapa erraz ulertzea lortu nahi dute horrela, gehiegi kargatu barik.

Txipi Ormaetxeak orain bi urte eginiko "Arrasateko Toponimia" liburuan oinarrituta dago. Aurkezpena datoren asteartean egingo da udal-letxean eta berehala, dendetan salgai izango da, 200 pezetaren truke.

Fidantzarik ez

Bedoña auzoko Urialde base-rri-joateko bidean pitzadurak egin zituen Central Forestal enpresak zuhaitzak ateratzen zebilela. Hori dela eta, lanak bukatu ostean udalari hasieran egindako diru ezarpena itzultzeko eskatu diotian, ezetza jaso du.

Izan ere, horrelako lanak egiterakoan, diru ezarpen bat egiten da, badaezpada. Kasu honetan, 173.400 pezetakoa ezarri zuten.

“Kable elektriko berriak ingurugiroa ez hondatzea da gaurko helburua”

San Andres baserri auzoa ekarri dugu oraingoan gure orrialdeetara. Askorentzat San Andres soilik kale auzoa bada ere, 16 baserri batzen ditu bere baitan.

Iñaki Azkoaga Bastida da San Andres baserri auzoko alkate eta auzoari buruz dugun ezjakintasuna asezteko eskatu diogu.

“Kontua da San Andres auzoa urbanizatuta dagoela gehienbat. Lehen Kontzezinotik honaino heltzen zen, baina urbanizazioa gartu ahala, baserri auzoari lur zolua kendu zaio. Honek eragin du auzoak erdigune zehatzik ez izatea. Auzoabailararen bi aldeetan sakabanututa dago. Batetik, Intxaustitik Bedoñaraino eta bestetik, Takolotik Miraballese-raino. Erdetik, Deba ibaia pasatzen da.

Dena den, arestian aipatu bezala, 16 baserri daude San Andresen eta gainera, batzuk nahiko aipagarriak:

Muxibar baserria: Muxibar baserrikoa da Arrasateko artzainik gazteenetarikoa. Bildotsak hazten ditu Jesus Etxabek. Honetaz gain, gazta goxoa ere egiten du.

Asube-Gain, Miraballes eta Intxausti baserriak: Asuben okelatarako behi



Azkenaldian, San Andres auzoan “kondoi” biltegiak agertu dira.

txarolesekin egiten dute lan. Miraballese auzoko ogirik goxoena egiten dute eta zenbat aldiz jan dira San Andresen Intxaustiko barazkiak!

Otamendi baserria: askok Bedoña dela uste duten arren, Mondragoe da. Honen adibide da hildakoak Arrasaten lurperatu behar dituztela eta ez Bedoñan, lehen Bedoña Aretxabaleta baitzen.

Auzoan lehen San Josepe ermita zegoen, baina guttiz erorita dago. Jai nagusiak berez Patroziñoko jaiak dira, baina auzoari izena ematen dion patroia jai eguna ospatzeko ohitura dute, San Andres eguna, hain zuzen ere.

AUZOAREN GABEZIAK
Batez ere ondorengo gabeziak somatzen dituzte San Andreseko auzotarrek:

Bideak eta ura : oraindik ere Asube-Gain eta Asube-Aldeko baserrietarako bideak oraindik asfaltatu gabe daude. Gainera, Mondragoen urik gabe dauden etxeetatik hiru auzokoak dira. Auzoak ez du ulertzen zergatik orain arte ez diren konpondu oinarriko arazook.

Errepidearen arriskua: Automobilak abiada handian pasatzen dira. “Ertzaintzak gehiago zaindu beharko luke auzoa”.

Industrialde emblematikoa: harrobian egitera doazen industrialdea aprobetxatu beharko litzateke zerbait emblematikoa egiteko eta ez “lau barrakoi”. Udalak gogor egin beharko luke mundu osoan hizpide izan daitekeen lan bat egiteko aukera duelako Mondragoek.

Liskarrak: IFA ostetik DY Arako tartea azkenaldian gazteen gaueko bilguine bilakatu da. Behin baino gehiagotan gauzak apurtuta agertu dira, postontziak kasu. “Zonalde hau gehiago zaindu beharko luke Ertzaintzak”.

ARAZO NAGUSIA

Aspaldian, auzokoak kezkatuta dabilta Iberdrolaren egitasmo bat dela eta. Horren arabera, Mondragoetik 30 kv.ko tentsio altuko kablea pasatzekotan dabilta. Noski, kableak San Andres ere zeharkatuko du eta orain arte aurkeztutako proiektuaren arabera, ingurugiroari kalte handia egingo dio. Izan ere, arbolaz josiriko metro koadro piloa deus-tuko dira.

Jakinik herrian zerbitzugune bat egitea aurreikusita dagoela eta handik autobidea pasatuko dela, auzotarren ustez, “Foru Aldundiak aurrekari larria ezarriko luke baldin eta kablea bertatik pasarazten ez badu” eta horixe bera da San Andres auzokoek nahiko luketena.

Dena den, hori ezinezkoa balitz, lehendik auzoa zeharkatzen duenaren ondoren edo haren ordeztu ipini dezaten nahiko lukete.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiralean Setatik Setara.

Tel.: 943 79 26 99

Cristina Garcíandia Mugika

Dermatologoa

Kontsulta Centro Medico Udalaiz-etik Olarte kaleko 43ra aldatu du.

Olarte 43, Tel.: 943 79 81 11 / 943 79 81 00

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6-1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

astea bi hitzetan

■ 136 etxebizitza berri

IFAM lantegia orain dagoen lekutik A20ra aldatuko da. Izan ere, Gipuzkoa Etorbidean IFAMek dauzkan ia 14 mila metro koadroak etxebizitzak egiteko erabiliko dira.

Guztira 136 etxebizitza eta lurpeko 200 aparkaleku egitea aurreikusitako da. Lanak urte t'erdia barru hasiko dira. IFAM lantegia, berriz, bi hilabete barru hasiko da leku aldatzen.

IFAM enpresaren oraingo lurzorua eskubideak "Construcciones Suquia" enpresak erosi ditu. Ondorioz, enpresa honek lehen-tasuna izango du IFAMen lantegi berria egiteko lanen adjudikazioan.

■ Presoen aldeko aldarrikapena

Pasa den ostegunean udal-txean eginiko bilera baten ostean, Arrasateko Senideak eta Amnistiaren Aldeko

Batzordeak taldeak martxoaren 6an euskal presoaren alde egingo den kale agerraldia prestatzen aritu ziren. Joan den urtarrilean Bilbon egingo den kale agerraldi jendetsuaren ostean, herrietara zabaldu nahi dira antzeko ekimenak.

■ Publizitatea euskaraz

AEDK euskara bultzatzeko kanpaina berria hasi du. Supermerkatu eta gainerako dendek etxeetako postontzietara bidaltzen dituzten iragarkietan euskararen erabilera zuzpertz nahi du. Izan ere, iaz egindako azterketa baten emaitzen arabera, euskararen erabilera behera egin du. Hori dela eta, gaztelania hutsa erabiltzen duten merkatarientzara eragina izan nahi dute. Horretarako, AEDK "Euskarak ez ditu denak bere alde" esaldia duten gutunazalak banatuko ditu norberak etxean jasotzen duen erdarazko

publizitatea hor sartzeko. Ondoren, bi hilabetetik behin AEDRa eraman gutunzala eta AEDtik iragarki guztiak igorleari itzuliko dizkiote.

■ Masterra bukatu da

Produkzio Zuzendaritzako VIII. Master Programara pasatzen ostiralean amaitu zen. Guztira, 504 orduko iraupena izan du aurten. 23 teknikari eta zuzendarik parte hartu dute, besteak beste, Ulma, Mercedes, Fagor Elektratresnak eta Ikerlan enpresetako langileak izan dira zuzendaritzari buruzko master honetan. Ardura handiko karguak dituztenak trebatzea izan da masterraren asmoa. Guztiei diploma bana eman zitzaizkien Otalora Jaurregiko amaiera ekitaldian.

Mondragon Unibertsitateak antolatutako master honi agur esateko, Jose Maria Ormaetxeak, Jabier Retegik eta Ignacio Lakunzak hitz egin zuten.



PACO GARCIA EL SALVADORREN

Paco García, PSOE alderdiko zinegotzia El Salvadorra joan zen astelehenean, hango hauteskundeetan nazioarteko begirale izateko. Beste hainbat begiralerekin, martxoaren 7an presidentea aukeratzeko hauteskundeak modu egokian egiten direla ziurtatzea izango da bere lana.

El Salvadorreko FUNDASPAD elkarteak Euskal Fondoari nazioarteko begiraleak eskatu zizkion hango legeak ez baitu hauteskunde prozesua guztiz babesten. Ondorioz, nazioarteko begiraleen laguntza eskatu zuten.



Josu Arkauz preso duela bi urte Espainiaratu zuten Frantziako agintariek, haren aurka inolako estradizio eskararik ez zegoen arren. Orain, Paueko Auzitegiak legez kanpokotzat jotzen du kanporatze hura.

Garai hartan giza eskubideen aldeko hainbat erakunde Josu Arkauzen kanporatzearen aurka azaldu ziren eta ez gauzatzeko eskatu zuten. Euskal Herrian protestak ugariak izan ziren, eta Arkauzek berak 30 egun baino gehiago egin zituen gose greban eta astebete egarri greban. Hala ere, Frantziatik kanporatua izan zen bertan ezarri zigorra bete ostean.

Protesta egileei arrazoirik ez zitzaizela falta erakutsi du epaiak, baina berandu dator. Izan ere, Arkauz Espainiako espetxe batean dago eta, gainera, tortura jasan izana salatu zuen. Baina, are larriagoa dena, geroztik beste hainbat preso Espainiaratu ditu Frantziak".

EUSKALDUNON EGUNKARIA
1999.2.27

LASER DEPILAZIOA

- Behin betikoa, azkarra, ez du minik egiten
- Depilazio sistemak, zerbitzu medikuaren bermearekin
- Aholkularitza eta aurrekontuak

Itaca Zentru Mediku eta Estetikoak

Dr. Juan Carlos de Andrés Guerra.
General Alava 7. GASTEIZ. Tel.: 945 13 92 56 RPS 492/98



Danona
KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06



Bonba Taldie
Bonba Taldie
zelaletan
jaun eta jabe
Bonba Taldie
Bonba Taldie
etsi gabe
irabazi arte.

MADE IN ARRASATE

Iskanbila taldiekoek Bonba Taldearen inguruko letra eta musika asmatu eta hara non datozen Errealekoak kantua grabatzera! Oskar de Paula, Iker Sarriegi, Agustin Aranzabal, Aitor Aldeondo, Aitor "Bonba" eta Txefe Guerrero kantu-kantari ibili ziren. Ixilpean kontatu digute hauxe izan dela Oskar de Paula Arrasaten egon den lehenengo aldia eta primeran ibili ei da.

Shot diskaetxean grabatu dute kantua.

TXILETIK EUSKAL HERRIRA

Txileko Unibertsitate Katolikoak Villarrica herrian duen fakultateko hiru irakasle izan ziren joan den astean Arrasate Komunikabideak bisitatzen. Hilabeterako etorri dira Euskal Herrira, elebitasuna hezkuntzan nola lantzen den ezagutzera.

Hori dela eta, bi astebete egingo dute Eskoriatzan, Humanitate Fakultatean. Argazkian Hector Bustos, Francisca de la Maza eta Juan Lipiante Pirquiante.



LAN GOXOA

Beti ere ez da hain latza telebista batean lan egitea. Begira, adibidez, pasa den astean zein bisita ederra izan genuen: Arrasateko Jurassic Band taldea. Azkenean, grabazioa zela eta ez zela, beren musika goxoa entzunez aritu ginen lanean.





400 ARBOLA GEHIAGO

Ez dira ez, udalak hartutako lorezain berriak.

Mondragoeko haurrak eta erretiratuak dira. Zuhaitz Eguna zela eta, Hidalgo mendira joan ziren eta 400 zuhaitz landatu zituzten. Horrelako langileekin natura salbu dago, aizue!


GATZA ETA PIPERRA

A ze giroa izan zuten Al Andalus kultura elkartekok Andalusia Eguna ospatu zutenen! Jende ugari, musika barra-barra eta hura zen dantza egitea, hura!



AEK TXOTXI!

44 arrasatear Eizmendi sagardotegira joan ziren otsailaren 26an AEKrekin. Batzuen aurpegiak ikusita, benetan goxoa zegoen, bai, sagardoa!



AKTORE GAZTEAK


Erguin Herri Eskolan antzerki astea zela eta, hantxe ibili ziren haurrak eta gurasoak saltsan, pozik. "Errege Zorria" antzezlan da argazkikoa. Haurrak pozik eta gurasoak liluratuta.

Eroski Bidaiak: etengabe haziz

Luzea izan da, bai, Eroski Bidaiak agentziak Arrasaten egin duen bidea gaur egun dituen lau bulegoetara iritsi aurretik.

Lehen bulegoa 1976an ireki zuen, Iturriotz kaleko Eroski kooperatibaren barruan, gaur egun Euskadiko Kutxa dagoen bulegoetan. Handik Uribe Auzora pasatu zen, Eroskiren supermerkatuarekin batera. 1983an Portaloio ondora igaro zen, gaur egun Epeldek duen argazki denda-ra. 1991n Fagorren bulego nagusietan ireki zen beste bulego bat, enpresa negozioak kudeatzeko. 93an, berri, kaleko bulegoa txikia zela ikusita, gaur egungo bulegoetara pasatu zen, Portaloitik hurbilago. 97an Hiper Eroskikoa ireki zen, opor turismoa lantzeko. Eta, azken urratsa iaz egin zuten, Alfontso X. Jakintsua kalean, San Juanen, enpresen bidaiak lantzeko bulegoa ireki zutenean. Kontua da gaur egun lau bulego dituela Arrasaten, bi opor turismoa lantzeko eta beste biak enpresaokoak.

Jon Isazelaia ere bere bidea egin zuen Eroski Bidaietara iritsi aurretik. Melian hasi eta Ecuador agentzian ere ibili zen, 1991n Eroskira baino lehen. Aitortzen duenez, gauzak izugarri aldatu dira bera hasi zenetik. Orduan bai kontabilitatea eta baita erreserbak ere eskuz egiten ziren. Gaur egun, ordea, programa infor-



Jon Isazelaia Portaloiko bulegoaren ondoan.

matiko bereziak dituzte hori guztia egiteko.

Nahiz eta Eroski Bidaiak agentziaren bulego nagusia Elórrioren egon, bulegoen kudeaketa deszentralizatu dute: bakoitzak bere fakturazioa du. Eskaintzak ere batzuk Elorriotik iristen zaizkie eta beste batzuk maioristen bidez.

LANGILEAK ETA BEZEROAK

Hamabi langile ditu Eroski Bidaiak Arrasaten, gehienak Turismo ikasketak egindakoak. Deba Bailarako bulegoen ardura du gaur egun Jon Isazelaia. Hor sartzen dira Eibar-ko eta Ermuko bulegoak. Apirilaren 26an, gainera, bulego berria irekiko dute Bergaran.

Baina nolakoak dira agentziaren bezeroak? Enpresetako bidaiak egiten dituztenak ejekutiboak izaten dira eta SATekoak, astelehenetik ostirala bitartean ibiltzen direnak, gehienak Espainian eta Europan barrena.


Opor turismoa egiten dutenei dagokienez, era guztieta-

ko jendea dabil batetik bestera, kanpin dendan edo punta-ko hotelean. Izan ere, azken urte hauetan bidaiatzea izugarri merketu da. Eskaintzak ere ikaragarri zabaldu dira. Inor baino gehiago agian, gazteak dabilta: hizkuntzak dakizkite eta inoiz baino aukera hobeak dituzte.

Bulegoak	Arduraduna	Negozioa	Langileak
• Portaloia	Jon Isazelaia	Opor turismoa	3
• Hiper Eroski	Jaione Anso	Opor turismoa	2,5
• San Juan	Eugenio Arana	Enpresa	3,5
• Fagor	Aintzane Moia	Enpresa	3

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE



MARKO-JARTZEAK ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



Jena AUTO

2. ESKUKO AUTOMOBILEN GIDA

ARRASATE PRESS eta BERRIGARAren, 2. eskuko autoen aldizkaria.

5. zenbakia. 1999ko martxoa.

Komertziala: Nerea Lazpiur. Diseinua eta maketazioa: Iñaki Iturbe eta Txos Azurmendi.

Tirada: 11.500 ale.

Berrigara

Arrasate
PRESS

MARKA ETA MODELOA MATRIK. URTEA EZAUGARRIAK PREZIOA
AUTOLEYMA. Aitziturri 5. Bergara. Tf. 943 76 09 30

Peugeot 406 ST DT			IZ, KE, AG, LD, ABS	Interesgarria
Peugeot 306 Graffit 1.4			IZ, KE, AG, LD, 5 ate	Interesgarria
Peugeot 106 XS 1.6			IZ, KE, LD, 3 ate	Interesgarria
Peugeot 106 Sketch 1.1			IZ, KE, AG, LD, 5 ate	Interesgarria
Peugeot 106 Sketch 1.1			IZ, KE, AG, LD, 3 ate	Interesgarria
Peugeot 205 D			IZ, KE, AG, LD, 5 ate	Interesgarria
Peugeot 206 D			IZ, KE, LD, 3 ate	Interesgarria

BERRIA GARAJEA. Amillaga 49. Bergara. Tf. 943 76 22 43

Audi 80 1.8 iE	SS-AB	1988	LD, KE, IZ	*3
Renault Supercinco GTX	SS-AB	1988	IZ, KE, AH	*2
Peugeot 309 GTX	SS-AK	1991	LD, IZ, KE, AH	*3
Ford Orion 1.6 i	SS-AB	1988	IZ, KE, LD	*1
Ford Sierra Sport	BI-AZ	1989	IZ, LD, KE, Sapaia	*2
Ford Escort RS Turbo	SS-AJ	1990	LD, KE, IZ, AH	*3

ION AUTOAK. Amillaga 36. Bergara. Tf. 943 76 47 49

Land Rover Discovery TDI	SS-AZ	1994	AG, AH, 2 sapai, ...	Interesgarria
Peugeot 205 D	SS-AF	1989	LD, IZ, KE	Interesgarria
Peugeot 205 D	SS-AJ	1990		Interesgarria
Ford Mondeo 2.0 16V	SS-AP	1993	AG, ABS, AH, ...	Interesgarria
Renault Express D	SS-AC	1988		Interesgarria
Peugeot 205 D	SS-AJ	1990	5 ate	Interesgarria

KANPAZAR TAILERRAK. Bizkaia etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 943 79 41 98


Fiat Tempra 1.6 SX Suite	SS-AM	1992	KL, AH, IK, IZ, KE, LD	Kontsultatu
Fiat Uno 45	SS-AF	1989	IK, 5 ate	Kontsultatu
Fiat Uno D	SS-AF	1989	IK, 3 ate	Kontsultatu
Fiat Uno 45	SS-Z	1987	IK, 5 ate	Kontsultatu
Opel Corsa	SS-AM	1992	IK, 3 ate	Kontsultatu
Fiat Punto 55 S			IK, Pintura metalizat. 3 ate	Kontsultatu

AG: Aire girotua **AH:** Aleaziozko haguak **AL:** Alarma **BA:** Balbula anitza **IE:** Ispilu elektrikoak
HT: Hard top **IK:** Irrati-kaseta **IZ:** Itxigailu zentralizatua **KE:** Kristal-jasagailu elektrikoak
KL: Klimatizagailua **LD:** Lagunduriko direkzioa **LGT:** Lau gurpiletako trakzioa **LK:** Laino-kontrako argiak
LKA: Laino-kontrako aurreko argiak **NT:** Narruzko tapizeria **SE:** Sapai elektrikoak

*1: 300.000 PTAr arte
 *2: 300.000-500.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA
 *4: 750.000-1.000.000 PTA

*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *7: 2.000.000 PTatik aurrera

GARAJE MURILLO
Mekanika orokorra

 Leizeaga 4 • Bergara
 Tf. 943 76 13 84


Garraioaren mundua

LAGUN GARAJEA

Javier Gallastegi Arenaza

Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- IAT/ITVrako prestaketa

ORAIN HELBIDE BERRIA!

Santalaitz 3. Beragara. Tf. 943 76 11 20


AGUSTIN
**Automobilaren
 karburazio eta
 elektronika**

 Uribarri etorbidea 16.
 Arrasate. 943 79 73 58

MARKA ETA MODELOA MATRIK. URTEA EZAUGARRIAK PREZIOA

MARKIEGI AUTOAK. San Lorenzo z/g. Bergara. Tf. 943 76 35 09

Fiat Tempra		1992	Oso egoera onean	*3
-------------	--	------	------------------	----

MUGARRI. Araba etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 79 07 44

Nissan Patrol GR-TDI 4x4		1994	Full Equiped	*
Opel Frontera TDI 4x4		1992	Full Equiped	*
Ford Mondeo TDI Luxus		1994	Full Equiped	*
Ford Escort RS 2000I 150 CV		1992	Full Equiped	*
Ford Mondeo TDI GLX		1997	Full Equiped	*
Hyundai Cupe 1.6i		1998	Full Equiped	*

* 40 auto baino gehiago 200.000 eta 3.000.000 pezeta artean. Zatoz ikustera!

OLA TAILERRAK. Olabarrena z/g. Bergara. Tf. 943 76 47 74

Opel Vectra TDI 2.0	M-VZ	1998	Full Equiped	Negoziatzeko
Opel Astra 1.7 TD	SS-AU	1995	IK, KE, IZ, 5 ate	Negoziatzeko
Opel Kadett 1.8 GT	SS-AB	1989	AH, IK, AH, IZ	Negoziatzeko
Citroen Saxo 1.5 D	SS-AZ	1998	KE, IZ, IK, LD	Negoziatzeko
Peugeot 205	SS-Z	1988		Negoziatzeko
Opel Corsa 1.7 D	SS-BB	1998	KE, IZ, LD, IK, AH, Alerioia, 3 ate	1.375.000

SEAT UDALAITZ. Musakola z/g. Arrasate. Tf. 943 79 18 80

Opel Vectra 2.0	Z-AT			*4
Ford Sierra 2.0	SS-AH			*3
Audi 90 2.3 Quattro	SS-AS			*4
Fiat Uno 7.0 SX	SS-AH			*2
Opel Omega 2.0	SS-AD			*2
VW Golf 1.4 CL	SS-AZ			*3
VW Passat Syncro G-60	SS-AN			*4
Ford Escort Mohade 1.8 D	SS-AL			*3
Seat Toledo GLX TD	SS-AN			*4
VW Golf D	BI-BS			*5

AG: Aire girotua **AH:** Aleaziozko haginak **AL:** Alarma **BA:** Balbula anitza **IE:** Ispilu elektrikoak
HT: Hard top **IK:** Irrati-kaseta **IZ:** Itxigailu zentralizatua **KE:** Kristal-jasogailu elektrikoak
KL: Klimatizagailua **LD:** Lagunduriko direkzioa **LGT:** Lau gurpiletako trakzioa **LK:** Laino-kontrako argiak
LKA: Laino-kontrako aurreko argiak **NT:** Narruzko tapizeria **SE:** Sapai elektrikoak

*1: 300.000 PTara arte
 *2: 300.000-500.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA
 *4: 750.000-1.000.000 PTA

*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *7: 2.000.000 PTAtik aurrera

JASO GARAJEA

Autoen konponketa orokorra

Amillaga 1, 4 pabilioia.
Bergara. Tf. 943 76 33 00

PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g. Tf. 943 79 99 61 • ARRASATE

Garajeko mandoen kopiak egiten ditugu!

Txorno
Auto-errekabioak
Ibargarai 33, behea. BERGARA
943 76 29 95

35.000 IRAKURLE

Berrigara Arrasate PRESS

Dena AUTO

2. ESKUKO AUTOMOBILEN GIDA

Deba Garaiko auto saltzaileok! Aukeran dituzuen erabilitako kotxeen eskaintza, **Bergara, Antzuola eta Arrasateko ia etxe guztietara** helduko da. **35.000 irakurle** inguruk izango dute Dena Autoren berri.

Dena Auto, Deba Garaiko 2. eskuko automobilen gida, berriz ere zuekin, 1999an **eskaintza berrieekin** dator.

Kontratazioa

Nerea Lazpiur

ARRASATE PRESS
Otalora kalea 31
20500 Arrasate.
Gipuzkoa

Telefonoak:
943 76 03 97
943 71 25 11
Faxak:
943 76 29 77
943 71 23 95

BERRIGARA
Errotalde jauregia z/g
20570 Bergara.
Gipuzkoa

Aurten 6 zenbaki argitaratuko ditugu

Berrigara eta Arrasate Press astekarietan, honako egun hauetan:

Martxoak 5

Apirilak 23

Ekainak 4

Uztailak 9

Urriak 15

Azaroak 26

Uztailaren 9koa berezia izango da. San Kristobal dela eta, motorrari buruzko berezia egingo dugu, gaiaren inguruko **artikuloekin** eta publizitatearekin.

1999rako eskaintza berezia egin nahi dizuegu.

Lerroaren eta publizitate moduloaren prezioa hauexek izango dira:

LERROA: 1.300 PTA

PUBLIZITATE MODULOA: 3.000 PTA

Sei egin eta bost ordaindu:

Bost lerro kontratatzen badituzu, seigarrena doan jarriko dizugu. Eta urte osorako publizitatea kontratatuz gero, hau da, sei inserzio eginez gero (edozein modulaje), bost bakarrik kobratuko dizugu.

Euroa

Noiz atera ahal izango ditut euroak nire kutxazain automatikotik?

2002ko urtarrilaren 1etik aurrera. Urte horretako lehen sei hilabeteetan seguruenik kutxazain batzuk egongo dira pezetak ateratzeko eta beste batzuk euroak ateratzeko. Baina 2002ko uztailaren 1etik aurrera euroak baino ezingo dituzu atera.

Euro baten balioa

166,386 pta



Muntatze kateko langileak gehitu egin dira.

Fagorrek zeharkako 400 lanpostu kenduko ditu

Fagor Elektratresnak orain bi urte ekin zion produkzio prozesuarekin zuzenean loturik ez dauden lanpostuak murrizteko asmoari. San Andresko kooperatibak jakinarazi duenez, aurten amaituko da asmo hori. Guztira 400 lanpostu kenduko ditu, gehienak informatika zerbitzuekin eta administrazioarekin lotuak. Dagoeneko 300 kendu dira. Aurten gainerakoak kentzea espero

dute. Neurri honekin urtero 1.400 milioi pezeta aurreratuko dira.

Orain dela pare bat aste, bestalde, bukatu du Fagorrek beste egitasmo bat, *Frio Confort* izenekoa. Horren arabera, hotzari dagokion guztia Arrasatera ekarri dute eta aire girotua eta galdaren produkzioa, berriz, Basaurira eramanda. Horrekin Fagorrek beste 1.200 milioi pta aurreratuko ditu.

Fernando Gomez Ace-

do kooperatibako kudeatzaileak adierazi duen moduan, neurri hauek hartu behar izan dira "eguntik egunera gero eta lehiakorrago den merkatura egokitzeko".

Neurri honekin, beraz, Fagorrek 2.600 milioi pta aurreratu ditu.

Muntatze katean lan egiten duten langileak, berriz, gehitu egin dira azken urteotan. Gaur egun Fagorrek 3.500 langile ditu.

X Bataioak, jaunartzeak, enpresa bazkariak eta lagunartekoak

X Karta eta menu berezien zerbitzua

DENBORALDIKO
PLATERAK,
GIRO ONENEAN



BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABAETA

Tel.: 943 79 24 58

Dietetika eta Nutrizioa

Lorea Aramburu Dk.

- Medikuntzan eta Kirurgian Lizentziaduna.
- Bordeleko Unibertsitateak Dietetikan eta Nutrizioan Diplomatu.
- Bordeleko Unibertsitateak Kirol Medikuntzan Diplomatu.

Tratatzen diren osasun arazoak:

- Kolesterola
- Loditasuna
- Diabetesa
- Azido urikoa
- Arteria hipertentsioa
- e. a...

Ordutegia: Goizez eta arratsaldez

INSTITUTO MÉDICO PALACIO MENDIA

Erdiko kale, 22 - 1. • ARRASATE • Tel: 943 79 72 16

JABIER ZUBIZARRETA (ABADEA)

“Seme-alabek jaiotzen di

Arrasaten jaio zen 1941ean eta 12 urte zituela Donostiako apaizgaitegira joan zen. 1965ean Loiolan egin zen apaiz.

Ataunen hogeita bi urte egin eta gero, Donostiara bidali zuten Haurren Idazkaritzaz arduratzeko. Dena dela, oraindik ere Ataunera joaten da “hango apaizei lagundu eta hango kristauekin igandea ospatzera”.

Katiximarako material prestakuntzan aritu izan da Jabier Zubizarreta. Gidaliburuak egiten lagundu du eta, zortzi urteko lanaren ostean bere taldeak 36 bideo euskaratu ditu gai horren inguruan.

— Nondik edo nola irten zen egitasmo hau lantzeko asmoa?

— Katekesirako erabiltzen genuen materialaren osagarri gisa zeuden materialak erdara hutsean zeuden. Hasieran, Donostiako elizbarrutian hasi ginen lan horiek euskaratzen, geure kabuz eta geure baliabide apalak erabiliz. Baina orain zortzi bat urte, Donostiako Elizbarrutiko Haurren Idazkaritza sartu zen lan horretan Idatz izeneko argitaletxe eta liburudendaren laguntzaz.

Lau bideo euskaratu genituen: “Xabier eta Edurne” bildumako “Eukaristia”, “Adiskidetzea” eta “Bataioa”

bideoak eta “Ni zuekin nautze” bildumako “Beti barkatzen diguzu”. Horren guztia-
ren berri eman genien Euskal Herriko beste elizbarrutiei. Azken bost urteotan Baiona, Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Iruñeko elizbarrutia, Irakas-
kuntzarako Erlijosoen Federa-
kuntza


eta Ikastolen Elkarte batera ari gara lan hori egiten.

Hasierako lau bideoak kenduta, beste guztiak Lehize Ekoizpenak izeneko etxeak euskaratu dizkigu. Lan hori egiteko diru laguntzak jaso ditugu; horiek gabe ezinezkoa izango zitzaigun lana aurrera atera eta gaztelaniazko bideoen salneurrian kaleratzea.

— Zein irizpide erabili dituzue euskaratu dituzuen bideoak aukeratzeko orduan?

— Gaztelaniaz ezagutzen ditugun bideoak taldean ikusi eta aztertu ondoren, ez genituen denak ontzat hartu. Giza edo kristau heziketarako balio-
koak direla ikusi behar dugu.

“Maiteminduta dagoenari galdetzen badiozu zergatik ezkondu den maite duenarekin, zer erantzungo lizuke? Nik ere ez nuke jakingo besterik erantzuten.”



direnetik dute nortasuna”

Kalitateari begiratu diogu: bai heziketarako eta baita ikus-entzunezkoei dagokienez ere.

— **Mundu kaotiko hone-tan egonda, zein da oraingo haurrek erlijioarekiko duten jarrera?**

— Haurrak ez dira estralurtarrak eta normala den bezala, etxean eta gizartean bizi duten giroak eragin zuzena du beraiengan. Aspaldi honetan haurrekin lan egiten duten katekistekin izaten dut harremanik gehien. Haiei entzun diet haurrak asko aldatu direla urte batzuetatik hona. Gurasoen jarrera nolakoa, haurrena halakoa.

— **Nola edo zergatik sar-tu zinen erlijioaren bidean?**

— Maiteminduta dagoen bati galdetzen badiozu zergatik ezkondu den maitatzen duen horrekin, zer erantzun-go lizuke? Nik ez nuke jakin-go beste erantzunik ematen.

— **Abade moduan bizi izan duzun bizipenik esan-guratsuena?**

— Bizipenak bizi egiten dira; zailak dira kontatzeko. Dena dela, ez naiz bizipen handiko gizona; ez dut nire bizitzan batzuen bizitzei buruz kontatzen diren bizipen harri-garri eta txundigarririk. Nire bizitza bizipen txikiz osatua dago; denak batuta zertxobait dira, niretzat asko.

— **Zer saiatzen zara hau-rreri irakasten erlijioaren bitar-tez?**

— Ez diet ezer irakatsi nahi. Jesus ezagutzera eman

nahi nieke. Ezagut ditzatela benetan Jesus eta Jesusek ager-tzen digun Jainko Aita maita-lea eta maitagarria. Ez dago esperientzia horren parekoa den irakaspenik.

— **Gurasoei emango zenieke aholkurik?**

— Aintzakotzat har ditza-tela beren seme-alabak, horrek esan nahi duen guztiarekin. Aintzakotzat hartzea ez baita haiei dena ematea soilik. Seme-alabak ez dira guraso-en eranskinak, jaiotzen dire-netik nortasuna dute eta nor-tasun hori garatzen lagundu behar diete gurasoek, beste-rik ez. Zaila izaten da askotan

bestearen nortasuna ezagutzea eta nortasun hori errespetatzea, batez ere oso “gureak” ditu-gun haurrekin.

— **Donostialdean bizi zara orain. Sentitzen duzu Arrasate falta?**

— Arrasatekoa eta arra-satearra naiz eta hori horrela izango da beti. Arrasateri buruz ari direnean, nahi gabe ere belarriak tente jartzen zaizkit. Hori barruan daramazun zer-bait da; Arrasatek oihartzun berezia du neure bihotzean. Arrasaterako bidea ez zait ahazten; astero joaten naiz, aita-amekin bazkaldu eta buel-ta. Hilean behin edo, etxeko guztiak biltzen gara mahaiaren inguruan urtebetek eta horrelakoak ospatzeko. Kin-to lagunak ere urtean behin elkartzeko. Parrokia zahar-berriaren irekieran ere izan nintzen, etxean hartzen duten *Arrasate Press* irakurtzen dut... ■

“Arrasateri buruz ari direnean, nahi gabe ere, belarriak tente jartzen zaizkit. Arrasatek oihartzun berezia dauka neure bihotzean.”



GRONDO
Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoa
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE

Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



Transito antzerki taldearen saioa.



Saioa Alzua

Malabarius Muskaria, Belenen omenaldian.



Iazko uztailen egindako Sexualitate astea.

Dozena bat urte behin

Gaztetxeak Euskal Herriko herri askotako ezaugarri bilakatu ziren 80ko hamarkadaz geroztik. Garai hartan herri askotako gazteek hutsik zuden etxeak hartu zituzten gazteen etxe bihurtuz. Elkartzeko eta gauzak egiteko leku ezak bultzatu zituen gazte horiek toki huts haien jabe egitera. Kasu askotan elizaren eraikinak izan ziren, ziu-reenik eliza zelako toki gehien zituen erakundea. Arrasaten, ordea, garai batean Juventud Deportiva zenak udalari lagatuko tokia hautatu zuten herriko gazteek gaztetxea egiteko. Gurea zinemari buruz ari gara.

1 1987ko apirilaren lauan hartu zuten Gurea zinema zena. Garai hartan herriko gazteek ez zuten biltzeko lekurik, ez eta euren ekimenak lantzeko toki aproposik. Udalak ez zion egoera horri beren gustuko irtenbiderik ematen, Arrasateko Gazte Asanbladak (AGA) garai hartan inork erabiltzen ez zuen Gurea hartzea erabaki zuen.

AGAk urteak zeramatzan lanean, kontzertuak, ikastaroak eta antzerki saioak, besteak beste, antolatzen. Hori dela eta, Gurean sartu eta txukundu zutenean, ekimen horiekin segitu zuten. Sorgina Irratia irrati librea izan zen AGAren proiektuetako bat. Herriko gazte asko aritu ziren irratisaioak egiten eta askorentzat komunikabide batekin izan zuten lehen harremana izan zen. AGAtik ere atera zen Tunantes del Norte antzerki taldea. Bi urte zeramatzan talde moduan Gurean lanean hasi zirenean.

Baina kultura mugimendu hau bertan behera gelditu zen Gurea itxi zenean. AGAk Gureako giltzak itzuli zizkion udalari 1989ko martxoaren lehenean. Aste honetan, beraz, bete dira hamar urte.

Garai hartan Gurean biltzen zirenek gogoratzen dutenez, "eskaera bat baino gehiago egin zitzaion udalari gaztetxea jartzeko, baina erantzun faltak okupaziora eraman gintuen. Gure helburua zen gazteek zuzendutako gaztetxe bat egitea. Gainera, saiatu

ginen Udalarekin harremanak izaten, baina ez zen erraza izan. Udalak ez du inoiz gaztetxea zerbitzu publiko bezala ikusi eta gure garaian ez zekiten nola egin aurre hari. Hori dela eta, kontzertua boi-

koteatu zigutenean, nahiz eta hurrengo egunean argia eman ziguten berriz ere, jarrera aldatzen ez zutenez, giltzak eman genizkien eta hortxe amaitu zen Gureako gaztetxea".



Des-Kontrol taldea izan da gaztetxean jo duten talde txikietakoko bat.



Saioa Alzua

Bigarren azoka alternatiboa kalistroetan.



Tunantes del Norte antzerki taldea.



Perkusio ikastaroetako bat.

behineko egoeran

OSPITAL ZAHARRERA

1991ko Aste Santu inguruan kalistroetan elkartzen ziren gazteetako batzuk ospital zaharrera sartzen hasi ziren. "Mahaiko tenisean jolasteko mahai bat ipini zuten gazte

batzuek eta poliki-poliki saartzen hasi ginen. Ia txiripaz gertatu zen. Gero pentsatu zen gaztetxe bihurtzea. Udaltzaingoa ere etorri zen gu handik egozteko asmotan, baina ez zen ezer gertatu. Giroa oso bestelakoa zen. Aurreko gaztetxean elkartzen zen jendeak nahiko erreta amaitu zuen eta ez zegoen gazte asanbladarik". Horrela gogoratzen dute Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatua (AGAKO) taldeko kideek ospital zaharrean dagoen gaztetxearen sorrera.

14 urtetik 17 urtera bitarteko gazteak izan ziren ospital zaharreko maizter berriak eta eurak izan ziren AGAKO sortzea erabaki zutenak. "Hasierako urte haiek oso onak izan ziren. Jende asko mugitzen zen eta herria ere alde zegoen. Giro oso ona zegoen. Denborarekin, ordea, jendea erretzen joan zen, askok larregi eman zuten eta. Azkenengo urteotan ere jende gazte asko ari da gaztetxera hurbiltzen eta horrek ere bestelako giroa egotea ekarri du. Ohiturak eta gustuak alda-

tzen doazen heinean, gazteak ere aldatzen dira eta orduko gazteen gustuak eta oraingoenak, nahiko ezberdinak dira, batez ere musikari dagokionez."

BARNE FUNTZIONAMENDUA

Batzar edo asanblada bidez hartzen dira erabakiak gaztetxean. Izan ere, eta AGAKOko kideek azaltzen dutenez, "gaztetxea gauzak egiteko gune bat da. Batzarren bidez funtzionatzen dugu eta horren arabera giroa ere oso zabala da. Gaztetxea denona da. Jendeak nahi duenaren arabera aritzen gara. Erabakiak adostutakoak izaten dira".

Tabernari eta gaztetxeko mantenimenduari dagokionez, bi liberatu dituzte gaur egun. "Azkenengo laupabost urteetan liberatu pare bat ditugu. Hasieran borondatez aritzen zen jendea, baina beti gertatzen den bezala, horrek erre egiten du eta taberna eta mantenimendu arduradunak ipintzea erabaki genuen, soldata txiki baten truke. Gelditzen den dirua gaztetxeko ekintzak egiteko erabiltzen da".

BETIKO KEXUAK

Gaztetxe guztietan gertatu den bezala, Arrasatekoak ere kexu ugari jaso ditu. Zarata dela, zikinkeria dela... eta garai batean drogak zirela eta, kexu bat baino gehiago jaso behar izan dute AGAKOn. Baina eurek dioten bezala, "arazo horiek guztiak saihas daitezke laguntasun piska batekin. Daukagunaz eta lortzen dugunaz baliatzen gara". Konponketak ere horrela egin ziren.

Hiru konponketa nagusi egin dira gaztetxean. Lehenengo biak gaztetxekoek egin zituzten. "Nahiko konponketa handiak egin ziren: mila zulo bete, pareta egin. Amaia zaharreko antzeztokia erabili genuen hemengoa egiteko. Barra bera ere Amaia zaharrekoa zen". Hirugarren konponketa udalak bultzatua egin zen. "Komunak egin behar zirela eta, argindarraren eta uraren kanalizazioa ere egin zuten".

ETA ETORKIZUNEAN?

Aste Santuan zortzigarren urteurrena ospatuko du eta



Jon Ozaeta.



Saioa Alzua

Belenen omenaldiko afaria.



Aulkiak konpontzen Gaztetxe aurrean.



Gurea, gaztetxe zaharra.

Gaztetxean egindako ekitaldietako batzuk:

- 1991ko apirilaren 22an, ospital zaharreko lehen kontzertua izan zen. Orduan Xementerio eta Zarama taldeak aritu ziren. Atzetik etorri ziren, *Rip, SS-77, EH Sukarrak, Suta-gar, Heriotza, Def Con Dos, Doctor Deseo, Negu Gorriak, Dut eta Fermin Muguruza* eta gaur egun hain ezaguna egin den *Undrop* taldea, hain ezaguna ez zenean, beste askoren artean. Guztira 1.000 kontzertu baino gehiago.

- Ikastaroak eta txapelketak ere ugari izan dira: sukaldaritza, txalaparta, mimika, perkusioa, larrugintza, malabarrak, billarra, partxisa, futbolina, karta jokoak eta beste-lakoak egin dira.

- Beste batzuk: baba-afaria, mendi irteerak, merkatu alternatiboak, ekintza ezberdinetarako autobusak, mahai inguruak, San Juan alternatiboak, ATBko programak, Intsumiso Egunak, Aste Gaztea, Sexualitate astea, Martxoaren 8a, omenaldiak...

- Bitxikeria: 1991an Komite Internazionalistak eta Aretxabaletako gaztetxearekin batera Nikaraguako Malpaisin herrian gaztetxe bat egiteko kanpaina antolatatu zuten.

gaztetxeak ez du bere etorkizuna bat ere garbi ikusten. Izan ere, udalak kultura etxea egiteko duen proiektua dela eta, inork ez daki gaztetxearekin zer gertatuko den. Jose Mari Loiti alkateak azaldu digunez, "kultura etxea oraindik proiektua baino ez da. Ez dugu erabaki zer egin behar den gaztetxearekin. Lehenengo jakin behar duguna da zer nolako

gaztetxea falta den Arrasaten. Gaztetxea gainera etorri zaigun zerbait da eta ez dakigu zer egingo dugun. Orain arte ez dio inork gai horri behar den moduan heldu".

Honen aurrean AGAKOko kideak ez datoz bat udalaren asmoekin. "Zortzi urte daromatragu hemen kultura egiten. Hau gauzak egiteko toki bat da, gazteen gune bat. Hemendik

ateratzen diren kultura ekimenak gazteen nahiek erabakitzen dituzte. Ez dugu udalaren aurrekontuen menpe egon nahi. Autogestioa bidegarria dela erakutsi dugu urte hauetan guztietan, nahiz eta batzuetan, noski, laguntza beharrezkoa izaten den".

Orain dela zortzi urteko egoera behin behinekoak bere horretan segitzen du, beraz, gaztetxean. "Beti esan digute hemen behin behinekoz gaudela eta ezin direla konponketak egin".

Ikusi egin behar hemendik aurrera zer gertatuko den. Dena dela, AGAKO zortzigarren urteurrena ospatzeko prestaketak egiten hasi da. Ospakizunak apirilaren 19tik 26ra luzatuko dira. Horrez gain, klown eta garapen pertsonaleko ikastaroak antolatzen ari dira, abian den margo ikastaroaz gain.

Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanbladak ere gaztetxean lan egiten du eta bi musika gazte berri ari dira gaztetxean entseiatzen.

Apirilean, bestalde, Gaztetxetik fanzinaren bigarren zenbakia kaleratuko dute.

Beraz, ez dirudi amore ematekotan direnik, nahiz eta itxieraren mamuak ospital zaharraren inguruan segitzen duen. ■



Saioa Alzua

Txalaparta ikastaro ugari egin dira gaztetxean.

Marijo Deogracias

Blai-blai

Euri xeheak nahiz lodiak busti egiten dute. Eta horixe gertatu zitzaien joan den larunbatean Zaldibarren aritu zirenei. Izan ere, zaparrada ederra egin zuen Txantxiku Kirolak eta AT Celaya taldeen arteko partidan!



Laburrak

■ KINIELAK

Azken jardunaldia jokatu orduko, talde askok daukate bigarren aldirako txartela poltsikoan. Hala ere, badira oraindik gauzak horren argi ez dituztenak. Horregatik, asteburu honetako partidak erabakigarriak izango dira eurentzat.

Sailkapenei begiratzen badiegu, A taldean zazpi taldek lortu dute txartela. Hiru toki gelditzen dira airean lau talderen artean jokatzeko: Leya, Ke Oxtias, Saukelu Screan eta Komando Alpargat. B

taldean, zazpi talde pasatu dira. Lau talde gehiagok dute oraindik aukera: Diego Antonio, DKB, Zotz eta AT Celaya. D taldeari dagokionez, zortzi talde sailkatu dira eta gelditzen diren bi tokiak, bost taldek jokatu dituzte: Fraguél Gol, Sokoakoak, Kamasutra, Betraye eta Bar Nuevo.

■ BILERA MONTERRONEN

Bigarren aldira pasatzen diren talde guztiek bilera izango dute Monterronen, martxoaren 8an, astelehena, arratsaldeko

19:00etan. Bigarren aldiko arauak emango dira jakitera, besteak beste.

■ BETEKO DIRA IRAGARPENAK?

Orain dela aste batzuk, lehen aldia amaituko ez zuten taldeak hamabi izango zirela iragarri genizuen. Eta ez ginen oso urrun ibili! Oraindik jardunaldi bat falta da eta dagoneko beste bi talde gutxiago daude; hau da, hamaika. Izan ere, 16. jardunaldian, D taldeko Decadencia eta Eusko Label

taldeak ere txapelketatik kanpo gelditu dira.

■ BIGARRIN ALDIKO ZOZKETA ZUZENEAN

ATBko Mondrasport saioan egingo da Zaldibarko futbito txapelketako bigarren aldiko zozketa, zuzenean. Datorren astelehenean, martxoak 8, Itxaro Zubillagaren kirol saioan jarriko dira zozketako lau zakuak. Guztira 32 talde sartuko dira zozketan. Itxarok aterako ditu bigarren aldiko multzo berriak.



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA



DOCKERS®
pants by
Levi Strauss & Co.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
ORLANDO PIR.	16	15	0	1	94	38	30
XHASSS UGARTE	16	12	2	2	96	54	26
AC SURKOS	15	11	3	1	93	49	25
LONTXO TABERNA	16	11	2	3	84	44	24
ALDIBI	16	11	1	4	105	46	23
INSERT COIN	16	11	1	4	60	54	23
PEPELUS	16	9	4	3	57	45	22
LEYA	16	8	2	6	52	51	16
KE OXTIAS!!!	16	7	2	7	52	46	16
SAUKELU	16	7	2	7	38	38	16
KOM. ALPARGAT	16	7	1	8	86	55	15
BUKANAK	16	5	1	10	60	86	11
SERENGETI HC	16	4	2	10	46	67	10
ALAI GOZOKIAK	16	4	1	11	41	97	9
MAKAI	16	3	0	13	41	86	6
BALON ROJO	16	2	2	12	25	65	6
REX 23	15	2	0	13	37	89	4
ROTOR BOLBO.	16	1	2	13	25	82	4

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
TXANTXIKU KIR.	16	15	0	1	127	36	30
IRATI STS	16	12	2	2	73	33	26
NARANJA MEC.	16	11	3	2	98	52	25
KKJAURI	16	11	2	3	81	52	24
GARAJE OSCAR	16	9	2	5	62	42	20
AURRERA BOLIE	16	10	0	6	59	44	20
KOKA JUNIORS	16	8	3	5	52	48	19
DIEGO ANTONIO	16	7	4	5	55	60	18
DKB	16	8	2	6	59	63	18
LOS HEREDIA	16	8	1	7	33	48	17
ZOTZ	16	7	2	7	56	57	16
AT CELAYA	15	6	2	7	52	63	14
POTROSORRI	15	5	1	9	41	96	11
ETXE MOBEL	16	2	1	13	31	87	5
LAUTERBRUNNEN	16	1	4	11	22	45	5
BORROCK&ROLL	16	2	1	13	20	32	5
ATERPE KAFE.	16	1	1	13	20	56	3
PUB ARROGOI	16	1	0	15	7	34	2



Hurrengo partidak

Larunbata, 6

Zaldibar

09:50 Ke Ostias!!! - Serengeti
 11:00 Aita Menni - You Know
 12:00 Irati STS - Koka Juniors
 13:00 Potroak - Kamasutra
 14:00 Leya - Makai
 15:00 AT Celaya - Potrosorri
 16:00 Fraguél Gol - Betrayer
 17:00 EPEH - Jotakabau
 18:00 Naranja Mecanica - Zotz
 19:00 Dribling - Branka Tab.

Iturripe A

12:00 Bukanak - Kom. Alparg.
 13:00 Rex 23 - AC Surkos
 14:00 DKB - KKJauri
 15:00 Saukelu - Orlando Pir.
 16:00 Aurrera Bol. - Gar. Oscar
 17:00 Insert Coin - Alai Gozoki.

Martxoak 7, igandea

Zaldibar

09:50 Totem - Jotakabau
 11:00 Pepelus - AC Surkos
 12:00 Xhass Ugarte - Aldibi
 13:00 EPEH - Bar Nuevo

Atsedena:

A taldea: Lontxo Tab., Rex 23
B taldea: Diego Antonio, Txantxiku Kirolak, Etxe Mobil, AT Celaya, Potrosorri
D taldea: Construcciones Luso, Sokoakoak

Emaitzak

A TALDEA

Bukanak 5 - Serengeti HC 3
 Lontxo taberna 6 - Orlando Pir.8
 Insert Coin 6 - Rex 23 3
 Saukelu Scream 1 - Balon Rojo 0
 Ke Oxtias !!! 5 - Makai 3
 Rotor Bolbogrado 0 - AC Surkos 1
 Alai Gozokiak 1 - Aldibi 13
 Xhass Ugarte 5 - Pepelus 4
 Leya 3 - Komando Alpargat 6

B TALDEA

Borroak & Roll 0 - Zotz 1
 DKB 5 - Garaje Oscar 2
 Los Heredia 0 - Etxe Mobil 1
 Aurrera Bolie 1 - Aterpe Kafe. 0
 Naranja Mec. 1 - Pub Arrogoi 0
 KKJauri 3 - Koka Juniors 6
 Txantxiku Kirolak 9 - AT Cleya 4
 Lauterbrunnen 0 - Irati STS 1
 Potrosorri 0 - Diego Antonio 8

D TALDEA

Cons. Luso 3 - Bar Nuevo 6
 Potroak 7 - Sokoakok 3
 Dribling 9 - Fraguél Gol 6
 Decadencia 0 - Betrayer 1
 EPEH 1 - Eusko Label 0
 Kamasutra 1 - You Know 8
 Branka taberna 5 - Jotakabau 4
 Totem 5 - Aita Menni 2010 4

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
YOU KNOW	15	14	1	0	82	30	29
POTROAK	15	11	2	2	75	43	24
DRIBLING	15	10	3	2	79	52	23
JOTAKABAU	14	9	1	4	40	34	19
BRANKA TAB.	15	7	5	3	72	50	19
EPEH	14	7	4	3	50	53	18
TOTEM	15	8	1	6	58	43	17
AITA MENNI 2010	15	8	1	6	59	53	17
FRAGUEL GOL	15	6	3	6	55	51	15
SOKOAKOAK	15	7	1	7	51	60	15
KAMASUTRA	15	6	2	7	59	48	14
BETRAYER	15	6	2	7	54	55	14
BAR NUEVO	15	6	2	7	53	57	14
DECADENCIA	15	2	3	10	26	38	7
JAKO AL REY	15	2	3	10	38	50	7
CONS. LUSO	16	1	0	15	28	92	2
EUSKO LABEL	15	0	0	15	26	96	0

ARRASATE KIROLAK

Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

EGUZKI GRAF

inprimategia

Industrialdea 1-0-4
 Telefonoa: 791841
 Faxa: 792941

ARETXABALETA

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
 beirina eta kristalak
 osagaiak

Olarte kalea, 47 beheka Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

Gazte mailako Gipuzkoako jaurtiketa txapeliduna

OSKAR GAVILAN

“Ez nuen egindako marka espero”

— **Espero zenuen irabaztea?**

— Espero bai, baina ez nuen egindako marka espero. Marka ona egin nuen, 36,48 m.ko jaurtiketa lortu nuen, diskoarekin.

— **Zure markarik onena da?**

— Jaurtiketa hobeak egin ditut, baina pixu txikiagorekin. Pixu horrekin, 1,750 kiloko diskoarekin inoiz egin dudana onena lortu nuen Anoetan.

— **Zer nolako maila aurkitu zenuen?**

— Maila ona zegoen, nahiz eta Gipuzkoan ez egon maila handirik. Euskal Herrian askoz ere maila hobe dago.

— **Orduan ez zen erraza izan irabaztea?**

— Ez, egia esateko, ez.

— **Euskal Herriko txapelketan arituko zara. Zer espero duzu?**

— Bai, hartuko dut parte. Bilboko bat dago nirekin leihan. Baina lehenengo edo bigarren gelditzea espero dut.

— **Iaz bigarren urteko haur mailan aritu zinen. Ondo joan zen denboraldia?**

— Bai, iaz ere nahiko ondo aritu nintzen, baina aurreko maila altuagoa izatean, zailagoa izan daiteke. Dena dela, prest egotea espero dut.

— **Zer helburu daukazu?**

— Espainian podiuma lortzea gustatuko litzaidake. Iaz Palma de Mallorcan izan nintzen eta zortzigarren gelditu nintzen. Beraz, aurreko hobeto aritzea espero dut.

— **Zein izango da hurrengo txapelketa?**

— Agian bi asteburu barru izango dut hurrengo proba, baina ez dakit zein.



ERRUGBIA Garaipena lokatz artean



Larunbatean egin zuen euria zela eta, lokatz artean leihatu behar izan ziren senior mailako Arrasate eta Bilboko Errugbi taldeak.

Bilboko taldea sailkapeneko laugarren egonda, leihandiko partida zen. Mondragoetarrek alde handiarekin garaitu zituzten bilbotarrak, baina ez zen garaipen erraza izan. Patxi Gorosabalen mutiak irabazten hasi ziren bigarren minutuan lortutako entsegu batekin eta atsedenera 19 tantuko aldea zutela iritsi ziren.

Partida amaitzean zegoela Gorosabelek eta Potatok eman zioten garaipena taldeari lortu zituzten bi entseguen esker. Azken emaitza 34 eta 10, etxekoen alde. Aste honetan Zarautzen aurka arituko dira.

FUTBOLA Berdinketa Ibarran



Aretxabaletan derbia jokatu zen Uda eta Mondraren artean eta, ohi bezala, jende mordoska gerturatu zen Ibarako futbol zelaira. Dena dela, zaleak ez ziren bat ere konforme gelditu ikusitako jokorekin. Partida Udak hasi zuen eta eurak izan ziren markagailua estreinatuta zutenak, Sergiok ateratako falta bati esker. Baina mondragoetarrak ez zeuden prest Aretxabaletatik esku hutsik itzultzeko eta berehala berdindu zuen Ruben Ruedak.

Ez zen partida ikusgarria izan. Golak oso azkar etorri ziren eta horrek bi taldeak behera etortzea ekarri zuen. Bi taldeen arteko bigarren der-

bia beraz, banako berdiketa-ekin bukatu zen. Igandean 16:45etan, Lazkaoko taldearen aurka arituko dira. Lazkaotarrak ere atzean daude sailkapenean. Beraz, partida eskuragarria izan daiteke Letonaren taldearentzat.

SASKIBALOA Errioxan, ezin



Arrasate Saskibaloi taldeak galdu egin zuen Santo Domingo de la Kalzadan. Igoera faseko lehen porrota izan zen eta espero izatekoa. Izan ere, denboraldi honetan errioxarrek ez dute partidarik galdu etxean.

Atsedendian berdinduta zeuden bi taldeak, baina bigarren zatian 57 puntuko berdinketa zegoela, epaileek arrasatearren aurka egin zuten eta errioxarrei eman zieten partida. Azken emaitza 89-80 izan zen. Larunbatean, Torregi la Peña taldearen aurka arituko dira Iturripen, arratsaldeko 19:15etan.

ESKUBALOA Lapurtutako partida



Arrasate Eskubaloi taldeak ere galdu egin zuen Donostiako Egia Yooger's taldearen aurka. Hauek ere epaileek kontra izan zituzten eta mondragoetarrek ezin izan zuten ezer egin. Gainera, bukatzeko 18 minutu falta zirenean David kanporatu egin zuen epaileak eta Balerdiren taldeak jokalaria bat gutxiagorekin egin behar izan zuen aurrera. Azken emaitza 24 eta 14 izan zen donostiarren alde. Aste honetan etxean arituko dira, larunbatean arratsaldeko 17:00etan izango da, Deusturen aurka.

Gipuzkoako judo txapelkunak Arrasaten

Gipuzkoako Judo txapelketa jokatu zen joan den asteburuan Musakolakolan. Espero zena baino jende gutxiagok hartu zuen parte, federakundeko taldeen artean tira-birak direla eta. Taldeek nolabaiteko boikota egin zioten Judo txapelketari.

Dena dela, gogoratzeko eguna izan zen judolari mondragoetarrentzat. Oso emaitza onak lortu zituzten maila guztietan:



Jende gutxi elkartu zen Musakolako kiroldegian.

GIPUZKOAKO JUDO TXAPELKETA

17 URTE AZPIKOAK

NEKAK

56 kilo azpikoak

Ainhoa Cea (Tolosa)
Leire Zabala (Arrasate)
Leire Prez (Arizmendi)

61 kilo azpikoak

Maialen Aranegi (Arrasate)
Emili Sukia (Kalamua)

MUTILAK

55 kilo azpikoak

Luis angel Lopez (Legazpi)
Joel Ibarguren (Zuhaisti)
Aritz Lazkano (Arrasate)

18 URTE AZPIKOAK

NEKAK

57 kilo azpikoak

Leire Zabala (Arrasate)
Ainhoa Cea (Tolosa)

63 kilo azpikoak

Maialen Aranegi (Arrasate)
Olatz Iturriotz (Kalamua)
Aitziber Garmendia (Kalamua)

20 URTE AZPIKOAK

NEKAK

48 kilo azpikoak

Itziar Zabala (Arrasate)

52 kilo azpikoak

Itziar Zabala (Arrasate)
Naia Domingez (Arizmendi)
Maitane Prieto (Legazpi)

57 kilo azpikoak

Naiara Uranga (Tolosa)
Leire Zabala (Arrasate)

63 kilo azpikoak

Lore Iturriotz (Tolosa)
Aitziber Garmendia (Tolosa)
Maialen Aranegi (Arrasate)

ESKOLARTEKO TXAPELKETA

ALEBINAK

NEKAK

38 kilo azpikoak

Lidia Casas (Arrasate)
Yaisu Ribas (Arizmendi)

MUTILAK

30 kilo azpikoak

Alex Soto (Urretxu)
Ander Romandi (Legazpi)
Ander Gartzia (Arrasate)

34 kilo azpikoak

Ruben Tejero (Urretxu)
Inko Zubia (Arrasate)
Asier Casas (Arrasate)

INFANTILAK

MUTILAK

42 kilo azpikoak

Carlos Rodriguez (Arrasate)
Jose Luis Azurmendi (Eibar)

55 kilo azpikoak

Jon Montiel (Elbar)
Javier Treviño (Arrasate)

60 kilo azpikoak

Jose Mari Trigo (Urretxu)
David Arnaiz (Arrasate)

65 kilo azpikoak

Iban Morales (Arrasate)
Iñaki Ruiz (Arrasate)

65 kilotik gorakoak

Alain Garriko (Arrasate)
Asier Fernandez (Ukaldi)
Unai Soraluze (Ukaldi)

Ikuskizun ederra Udalan



Udalako 5. Trialsin txapelketa jokatu zen igandean. Eguraldiak lagundu zuen eta ikuskizuna ederra izan zen. Hala ere, trialzale onenak falta ziren, Murtziako Espainiako txapelketa zela eta.

46 parte hartzaile aritu ziren, junior, infantil, alebin eta nesketan. Arrasatetik Xabier Kortabarría izan zen bakarra. Bosgarren izan zen

alebin mailan. Garaipena Iban Rodriguezek eskuratu zuen.

Urrezola anai-arrebak ere aritu ziren Udalan. Oihana Urrezola lehenengoa izan zen nesketan eta bere anaia Harkaitz, seigarren infantiletan. Garaipena Asier Izuzkinak lortu zuen.

Juniorretan zen parte hartzekoa Nestor Kortabarría,

Xabierren anaia, baina honek ere ezin izan zuen parte hartu, gripea zela eta. Maila honetan Lander Ladron izan zen lehena.

Dena den, igandekoa Gipuzkoako trialsin txapelketako laugarren froga zen. Beraz, oraindik aukera dextente dituzte herriko trialzaleak ere, sailkapenean gora egiteko.

Irrati kontrol, argazkigintza eta Karibeko dantzen ikastaroak antolatu ditu Gazteria Sailak

Arrasateko Udaleko Gazte Sailak irrati kontrol ikastaroa antolatu du Arrasate Irratia-ekin elkarlanean. Ikastaroa astearte eta ostegunetan izango da, arratsaldeko 19:00etatik 21:00ak arte, martxoaren 9an hasi eta apirilaren 20a bitartean. Gehienez ere 12 laguneko taldea arituko da irrati kontrol ikastaroan. Garbiñe Perez Arrasate Irratiko kolaboratzaileak emango du ikastaroa. Garbiñek "Magali" eta "Jailarai" irratsaioak egiten ditu Arrasate Irratian, eta beste programa batzuetan ere egin izan du irrati kontrola. Ikastaroan irratsaioa bat edo promo bat egiteko mahaia nola erabiltzen den, irratsaio bateko gidoia nola egiten den... erakutsiko du Garbiñek.

ARGAZKIGINTZA

Argazkigintza ikastaroa ASA elkartearekin elkarlanean antolatu du. Aipatu ikastaroa zapatu goizetan izango da, 10:30etatik 13:30ak arte, eta 21orduko iraupena izango du. Ikas-



Argazkiko Julio Lantiguak emango du Karibeko dantzen ikastaroa.

taroan gehienera ere 12 lagunek hartu ahal izango dute par-

te, eta apirilaren 17an hasi eta ekainaren 5ean bukatuko da.

Jon Ruiz de Zarate ASA taldeko partaidea izango da irakáslea. Matrikulak 5.000 pta.ko kostua izango du, eta 3.000 pta.koa ikasle eta langabeentzat.

KARIBEKO DANTZAK

Julio Lantigua dominikarrak emango du Karibeko dantzen ikastaroa. Ikastaroa emango duen laugarren aldia da, eta bi maila bereiztuko dira: hastapen maila, apirilaren 19tik maiatzaren 19ra emango dena eta sakontze maila, maiatzaren 24tik ekainaren 21era emango dena. Taldeen kopurua mugatua izango da, 26 pertsona baino gehiago ez baita onartuko taldean. Ikastaroa astelehen eta asteazkenetan izango da, arratsaldeko 19:30etatik 21:30ak bitartean, Musakolako Gazte txokotan. Ikastaroan izena eman nahi izanez gero 4.000 pta ordaindu beharko dira, eta 2.500 ikasle eta langabeek.

Ikastaro hauetan parte hartu nahi dutenek Gazte Bulegora deitu beharko dute.



Lan eskaintza

ARKO • Arrasate Komunikabideak

Publizitateko teknikaria

Baldintzak:

- Euskara ondo menperatzea.
- Harremanetarako erraztasuna izatea.
- Gidatzeko agiriaren jabe izatea.

Baloratuko da:

- Publizitate, Marketing edo Enpresa Zientzietan ikasketak izatea.
- Herri Komunikabideak ezagutzea.
- Merkataritza agente bezala esperientzia izatea.
- Arrasate ezagutzea.
- Testu prozesatzaileak eta datu baseak erabiltzea.
- Autoa edukitzea.

Curriculumak martxoaren 17a baino lehen aurkeztu beharko dira, ARKOren egoitzan

Otalora Lizentziatua, 31 • ARRASATE
Tel: 943 71 23 90 • Faxa: 943 71 23 96

BEGOÑA GARAIZABAL, MARTXOAREN 8KO KARTEL IRABAZLEA

“Eskuz eta ordenagailuz egindako hormirudiak, biak ditut gustuko”

Begoña Garaizabal 28 urteko elorri-arrak irabazi du aurtengo Emakumeen eguneko hormirudi lehiaketa. Margo-laritzarekiko zaletasuna Gasteizen marrazki eta margo ikastaro bat egin ostean sartu zitzaion. Diseinu grafikoa ikasi zuen gero Bilbon.

— Zer marraztu duzu zure hormirudian?

— Kartela kontzeptuala da. Irudi nagusia emakume batena da, eta gizaki moduan islatu dut berau. Batzuek emakumea objektu bezala ikusten dute, bere pentsaera eta balorea kontuan hartu barik. Ni ikuspuntu honen aurkakoa naiz, eta emakumea pertsona gisa aldarrikatzen dut hormirudi honetan, bere eguneroko labirintuan: etxean, kalean...

— Zer transmititu nahi izan duzu?


— Emakumea ez dela tresna, baizik eta giza balorea duela. Giza balore hori arlo guztietan antzematen da.

— Zein teknika erabili duzu hormirudia egiteko?

— Emakumearen argazki bat hartu nuen lehenengo, eta lehen aipatu labirintua eskuz landu nuen. Ordenagailu bidez eta Photoshop programa erabiliz tratatu dut gero hormirudia. Irudia piska bat abstraktoa da, baina oinarrian emakumea dagoela ikusten da.

— Aurrez beste lehiaketaren batean hartu duzu parte?

— Bai. Hau bosgarren lehiaketa izan dut. Joan den urtean Donostiako emakumeen eguneko lehiaketara aurkeztu nuen lan bat. Jaiak iragartzeko hormirudi lehiaketetan ere hartu dut parte. Dena den, hau da eskuratu dudan lehen saria eta honek aurrera segitzeko animoak eman dizkit.



— Denbora luzea eraman dizu hau egiteak?

— Prozesua luze samarra denez, kentzen du denbora, bai. Lehenik ideia zehaztu eta bozetoetan azaldu beharra dago. Ondoren bozetoetako irudia landu behar da.

— Zein da prozesu horretan lanik zailena?

— Ideia zehaztea da zailena. Ideia batekin hasi eta gero aldatu egin daiteke, hala ere.

— Nola jakin duzu lehiaketa honen berri?

— Udaletxeko Emakume Sailera deituta. Oinarriak etxera bidali zizkidaten eta animatu egin nintzen, hormirudiak egitea oso gustatzen zait eta.

— Beste teknikarik erabiltzen duzu?

— Hau ordenagailuz egin dudan lehenengo hormirudia da. Orain artekoak eskuz egin ditut. Dena den, ordenagailua ez da dena, prozesu honetako beste tresna bat baizik. Eskuz egindako hormirudiak zein ordenagailuz egindakoak, biak ditut gogoko.

“Emakumea pertsona gisa aldarrikatu dut hormirudi honetan”

aste gazte

■ GAZTEAK LANKIDETZAN

• 20-31 urte arteko gazteei zuzenduta, udako hiru hilebeteetan Hirugarren Munduko herrietan antolatzen dituzten elkarlan eta lankidetzajardueretan parte hartzeko aukera. Informatikoak, ekonomilariak, medikuak, erizainak, osasun laguntzaileak, pedagogoak, begirale edo hezitaille sozialak, ingeniariak, agronomoak, arotzak, elektrizistak e.a. behar dituzte, ikasketa hauetakoren bat egina izatea beharrezkoa ez den arren. Epea: martxoak 31.

■ LANA

• Lorazain lanpostuak: Zizurgo Udalerako. Epea, martxoak 12. Arangurengo Aranerako epea: martxoak 17.

■ LEHIAKETAK

• Urrietako Udalak antolatua, On Manuel Antonio Antia V. Literatura Lehiaketa. Ipuinak euskaraz, saritu eta argitaratu gabeak eta gai librean idatziak beharko dute izan. Epea: martxoak 29.

■ GAZTE IKASTAROAK

• Argazkigintza: hastapen mailako ikastaroa, apirilaren 17an hasi eta ekainaren 5a arte. Larunbat goizetan 10:30etatik 13:30etara. Matrikula 5.000 pta/3.000 ikasle eta langabeentzat.

■ MENDIKO ESKI IKASTAROA

• Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak eraturik, Cauteretsen martxoaren 19tik 21era egingo da ikastaroa.

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65


Wazen taldea aste honetan Kaleidoskopian

Aspaldi honetan hain ospetsu bihurtu den Wazen taldea izango da ostegunean Kaleidoskopioan. Wazen taldea Chanek, Charlyk eta Julius M.C.k osatzen dute. Chane eta Charlyk abestu egiten dute eta Julius M.C., berriz, musikaz arduratzen da. Carl Watermark, Nami Khouri eta I. Watchmaker ere Wazeneko partaideak dira eta programazioaz arduratzen dira.

Goierritar hauek badute asmo berririk. Beren esanetan, "euskar musikari hutsune bat zegoen eta gu hutsune hori betetzera etorri gara". Wazenek atera duen lehen diskoan talde famatuaren bertsioak egin

dituzte, hori bai, beti euskaraz. Bertsioak egin arren, beti ematen diete abestiei beren ukitua, abesti alai, bizi eta dibertigarriak eginez. "Gure helburua ez da jatorrizkoa bezalako produktua egitea, dantzatzeko baliagarria izatea baizik", esan digute Wazenekoek.

Taldeko abeslariak, Chane eta Charly, 97an eta 98an Hang Over taldearekin ibiliak dira Espainiako estatuan zehar bira batean. Orain, berriz, Wazen taldearekin dabilta buru-belarri. Kaleratu duten disko honetan abesti gehienak talde ezagunen bertsioak izan arren, badago beren abestirik



Aspaldiko abestiak molde berrian.

ere (abesti lasai bat barne).

Beraz, Wazen taldeari buruz zerbait gehiago jakin

nahi izanez gero, ostegun honetan gaueko 21:30etan duzue aukera, Kaleidoskopioan.

■ ATBren programazioa

LARUNBATA, 6	ASTELEHENA, 8	ASTEARTEA, 9	ASTEAZKENA, 10	OSTEGUNA, 11	OSTIRALA, 12
<p>13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika: Munduari bueltaka, Mahaingurua, Kaleidoskopioa, Soinuz blai eta Astebete.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena</p> <p>13:35 Astebete.</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak</p> <p>21:30 Mondrasport Itxaro Zubillaga kazetariak aurkezturik, asteburuko kirolei errepasoa.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena</p> <p>13:35 Mondrasport (errepika.)</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak</p> <p>21:30 Musiklasik Marta Izagirre eta Iñaki Olaizolak aurkezturiko musika saioa.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena</p> <p>13:35 Musiklasik (errepika.)</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak</p> <p>21:30 Aurrez-aurre Aste honetako gonbidatua Fernando Zufiria Arrasateko atletismo-ko entrenatzailea.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena</p> <p>13:35 Aurrez aurre (errepika.)</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak</p> <p>21:30 Kaleidoskopioa Aste honetan aspaldian hain famatu bihurtu den Wazen musika taldea.</p> <p>22:00 Soinuz Blai Edu Abasolok aurkeztu duen musika saioa.</p>	<p>13:30 Albiste aurrerapena</p> <p>13:35 Kaleidoskopioa (errepika.)</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak</p> <p>21:30 Astebete Astean zehar gertatu diren albiste garrantzitsuen errepasoa Maider Osaren eskutik.</p> <p>22:00 Soinuz Blai Edu Abasolok aurkezturiko musika saioa.</p>



Fernando Zufiria.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxebizitza salgai Aretxabaletan. Garaiea aukeran. Tel.: 943 79 80 44 (deitu 09:00etatik 18:00etara).

• Etxebizitza salgai. Tel.: 943 79 45 58.

• Etxe bat salgai Aldai kalean. Lau gela, bi komun, egongela eta ezkatza. 100m². Garaiea aukeran. Tel.: 945 46 14 78.

• Etxebizitza salgai Elorregi auzoan, Bergaran. Tel.: 943 76 07 47.

2. Erosi

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 649 20 35 12.

4. Errentan hartzeko

• Pertsona bakarrarentzako teillatupea alokatu nahi dut. Tel.: 943 79 59 60.

• Bikoteak etxebizitza alokatuko luke. Tel.: 943 65 45 40 / 943 72 30 25 (20:00etatik 22:00etara).

• Etxebizitza nahi dugu alokatu, Arrasaten edo inguruan. Tel.: 94 447 04 61

5. Etxeak osatzeko

• Etxebizitza bilatzen ari gara. Tel.: 943 71 42 39 (deitu 18:00etatik 21:00etara). Yolanda.

• Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu Aramaion. Tel.: 617 600 265 (bertan mezua laga).

• Logelak alokatzen dira Aretxabaletan (sukaldea erabiltzeko eskubi-dearekin). Tel.: 943 79 05 26.

• Logela baten bila nabil etxebizitza partekatu batean. Tel.: 943 42 98 19 (Noel).

• Pertsona euskalduna behar da etxebizitza osatzeko Arrasaten. Tel.: 943 85 04 86.

• Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Asteazkenean Cordoba y Oro, 6 - 5. ezkerrean jo edo beste la deitu asteburuetan 943 88 43 33 telefonora.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdtu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontakatuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

GARAJEAK

7. Saldu

• Garaiea salgai S. Andres eskola ondoan; auto batentzat. Tel.: 943 62 46 00 (102 luzapena). Santi.

• Garaiea toki bat saldu nahi nuke Munarren. Tel.: 943 79 44 07.

• Garaiea itxia salgai Larrea aldean, 25m²koa (bi autorentzako lekua dauka). Tel.: 943 79 69 41 (Mari).

• Garaiea salgai Laukalen (Roneon). Tel.: 943 79 01 71. (19:00etatik 22:00etara).

• Garaiea salgai Kontzezinon. Tel.: 943 79 54 07.

• Garaiea salgai. Bi autorentzako lekua du. 200m². Aldai kalean. Tel.: 945 46 14 78.

10. Errentan hartzeko

• Garaiea bat alokatuko nuke Musakola aldean. Tel.: 943 79 21 46.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Lanean dabilen negozioa eskuz aldatuko nuke. Tel.: 943 79 47 85.

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu 100m²ko bi solairu dituen tokia salgai. Tel.: 943 79 07 24.

14. Errentan emateko

• Denda bat alokagai Arrasaten. Tel.: 943 79 08 70.

• Artista: zure obra gauzatzeko toki lasai eta barea behar baduzu, Arrasateko hurbil, Deba Garaian tailer bat daukat elkarrekin erabiltzeko. Tel.: 943 71 42 86.

• Ile apaindegia eta edertze aretoa alokatzeko. Santamainan, 14-behea. Tel.: 943 79 73 43 (Mertxe).

• Enpresentzako lekuak dauzkagu alokatzeko, ura eta argindarrarekin. Era honetako jarduerak egin litezke hemen: muntaketa, prentsa, pintaketa, soldaketa eta galdaragintza. Tel.: 608 770 786.

15. Errentan hartzeko

• Gazte talde batek lokal merke bat alokatuko luke. Tel.: 943 79 86 08. (Jon).

• Lagun talde batek lokal bat alokatuko luke, Arrasaten edo inguruetan. Tel.: 943 79 87 40 (Iker). Deitu 21:30etatik aurrera.

• Lagun talde batek hutsik duzun txoko hori alokatuko luke. Tel.: 943 79 65 31.

• Gazte talde batek toki bat alokatu nahiko genuke Arrasaten. Tel.: 943 79 40 65 (Maitane).

• Garaiea edo toki txiki bat alokatuko genuke. Tel.: 943 79 72 93.

LANA

17. Eskaintzak

• Neska prest sukalde laguntzaile bezala lan egiteko edo taberna nahiz jangelako zerbitzari gisa. Esperientziaduna. Tel.: 943 79 73 42. Beatriz.

• Esperientziadun andra gertu etxeko lanak egiteko ordutegia. Tel.: 943 79 11 46 (asteburuetan deitu).

• Zazpi urteko esperientziaduna lan egiteko prest jateko edo taberna batean zerbitzari bezala. Tel.: 943 77 08 13.

• Neska bat behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 73 82.

• Emakumea prest pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak ditut.

• Ingeles eta frantsesezko itzulpenak egiten ditugu. Merke eta azkar. Tokiko profesionalak. Tel.: 943 77 18 23.

18. Eskaerak

• Euskaraz hitz egiten dakien pertsona baten bila nabil, elikadura denda baterako. Bezero asko ditugu. Tel.: 943 79 96 39 / 941 60 81 79. (Fernandez galdetu).

• Emakume euskalduna behar da, umeak zaintzeko. Tel.: 943 77 01 31.

• Pertsona bat behar da taberna bateko sukaldean lan egiteko. Tel.: 943 79 61 64.

• Emakume arduratsua behar dugu umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 23 44.

• Enpresa batek mezulariak behar ditu, 1.200 kg. edo gehiagoko furgonetarekin ibiltzeko. Tel.: 943 79 92 77.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Irakasle ikastetetan lizentziadunak eskola partikularrik ematen ditu. el.: 943 79 35 24.

• Fandango eta arin-arin ikastaroa helduentzat. Moises Azpiazu dantza taldeak zuzenduta. Larunbat goizean 11:00etatik 12:30ak arte. 2.000 pta. hileko. Tel.: 943 76 15 40.

21. Eskaerak

• Gastelaniazko eskola partikularrik hartuko nituzke. LOGSE 1. eta 2. mailatan. Tel.: 943 79 79 12

MOTORRA

23. Saldu

• Trialerako Aprilia Climber salgai. 280cc³, egoera onean. 225.000 pta. Tel.: 943 79 78 36

• Volkswagen Golf bat salgai. GTI 16v. SS-AD matrikuladuna. Tel.: 943 77 16 46 (20:00etatik aurrera).

• Rieju RS1 Evolution motorra salgai. 6.000 km. Tel.: 943 79 25 73.

• Opel Corsa 1.2 salgai, egoera eta prezio onean. Tel.: 943 79 79 18. (Gorka).

• Citroen Xara 1.600 salgai. 90 cv. Gasolina. Matrikula: SS-AZ. Tel.: 610 64 52 04 (18:00etatik aurrera).

DENETARIK

26. Saldu

• 150 litroko eta bi acumuladore dituen termo ur berogailua salgai. Tel.: 943 76 44 96.

• Hozkailu txiki bat saldu nahi dut. Modu onean. Tel.: 943 79 22 21 (15:00etatik aurrera).

• Yamaha gitarra elektrikoa salgai. Gutxi erabilia. Tel.: 943 79 71 30 (Aitor).

• Eskiatzeko bular babesa salgai. Oso egoera onean. Neurria, XXL. Tel.: 943 79 27 70 / 610 861 052.

• Volkswagen Golf baten eskitegiak salgai. Tel.: 943 79 27 70 / 610 861 052.

• XR2 baten lllantak salgai, estalki eta guzti. Tel.: 943 79 27 70 / 610 861 052.

• Salgai: gitarra elektrikoa (beltza, hiru pastillak), estalki gogorra (berria), anplifikadorea (Roand markakoa, efektu eta guzti, flangerra adibidez), distorsio pedala, metal zone, guagua pedala (Vox markakoa), kableak, gozagailua. 60.000 pta. Helbide elektronikoa: FD1@decgi.e-mail.com

• Spaniel bretoi arrazako txakurkumeak salgai. TI.: 943 79 19 63.

• Bulego altzariak salgai, prezio onean. Tel.: 943 79 84 35 (Luis Velasco).

31. Galdu

• Artzain txakur bat galdu da. Izena: Sohi. Lepoko berdea darama. Osteogunean galdu zen, Sara inguruan. Zer-

bait dakienak dei egin dezala 943 77 13 66 telefonora.

• Inauterietako asteartean argazki erroilu bat galdu nuen San Andres eta Erdialdearen arteko bidean. Aurkituz gero, deitu 943 71 48 26 telefonora (Montse - Mari).

33. Bestelakoak

• Tarot, kiromantzia. Lehena, oraina eta etorkizuna. Argitu zure zalantzak. Tel.: 689 93 60 58.

• Larunbatean, eta gura barik, nirea ez den jaka bakeroa eraman nuen etxera. Nirea eraman zuenak, mesedez, dei egin diezadala 943 79 59 40 telefonora, eta horrela trukatu egingo ditugu. Elena.


HARREMANAK

37. Bestelakoak

• Orrialede hauetako irakaskuntza saileko eskaeretan agertzen den "gastelaniazko eskolak hartuko nituzke" iragarkiarekin deia hartu zuenak, mesedez deitu berriz ere 943 79 79 12 telefonora.

Erdiko Kale, 54 etxabea • ARRASATE
Tel: 943 79 09 09

AG AMAGARA



Edertasuna gure
helburua da,
garrantzitsuena
zu zarelako

Deitu konpromisorik gabe

GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

- Zelulitisa
- Lasaitzea
- Elektroliposia
- Hanken astuntasuna
- Lokatz terapia
- ...

AURPEGIRAKO TRATAMENDUAK

- Deshidratazioa
- Zimurrak
- Akne
- Kuperosia
- ...

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- (Arruabarrena Dk. 6.073 zenb.ko elkargokidea)
- Zelulitisa, ximurrak eta aknea konpontzeko eta lasaitzeko terapia berriak
 - Kolageno betetzeak Hilafort Sistema
 - ...

MIKROPIGMENTAZIOA

- Ezpainak eta begiak nabarmendu
- Bekainak zuzendu

DEPILAZIOA

- Argizari hotza edo beroa
- Mailakako depilazioa
- Depilazio elektrikoa (Blend Sistema)
- ...

SOLARIUMA

BETILEAK KIZKURTU ETA TINDATU ...

MARTXOKO ESKAINTZA BEREZIAK

- Depilazioa, Gorputz tratamenduak, Mailakako depilazioa



66 **I**beria" futbol taldea Mondragon txapelketako irabazle izan zen 1949. urtean. Beste zenbaitetan ere lortu zuen txapelketa hone-tako irabazle izatea.

Futbol talde honetako jokalar guztiak ez ziren lagun talde berekoak. Izan ere, txapelketa aurrera joan ahala, kanporatuta gelditu ziren beste futbol taldeetako jendea fitxatzen zuen "Iberiak", indarra hartzeko. Cerrajerarena izan

zen Zaldispeko zelaian ere jokatu zuen talde honek.

Ezkerretik eskumara zutik: Damaso Vaquero, Daniel Uribarren "Ante", Julito Markaide "Gomazko Gizona" (oso malgua omen zen), Juanito Amozarrain "Paiko", Jose Luis Uribarren "Ante" eta Juan Jose Uribarren "Ante". Konturatu-ko zinetenez, hiru anaia dau-de jokolari hauen artean.

Makurtuta daudenak dira, Natalio Carmona, Valentín Isasi, Jesus Errasti, Jose María Lazpita eta Marcelino Sanz.

Iturripeko futbol zelaian dago aterata argazkia.

Iturripeko zelaia 1945eko ekainean inauguratu zen. Orduan, Batzar Eukaristikoa ere egin zen Mondragoen. Maalako zelaia-oren ostean, lehenengo Iturripeko hauxe izan zen. Ondoren, berriz ere lekuz aldatu zen, Eskola Politeknikoaren eraikinen artean geldituz.

Argazkia eta berriematea:
Damaso Vaquero.

Oharra:

Nahi baduzu etxean duzun aspaldiko argazki eder hori Arrasate Pressen argitaratzea, ekarri geuri eta atera-ko dizugu.



5 urteko bermarekin

Ordezko piezak **24** ordu

Laquntza errepidean **24** ordu

☎ 900 30 80 80

Lehenengo gizakia, gero makina

MENDIOLA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE
Erakusketa eta Salmenta: Tel.: 943 79 00 11
Mekanika eta karrozeria: Tel.: 943 79 75 64

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK



BI SOLAIRUKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 943 79 41 82

ARRASATE

GRUPO **RK AUZ** **FAGOR**

ALTZARIAK



Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51
ARETXABALETA

SUKALDE INTEGRALA



Mitarte 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55
ARETXABALETA

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

Errealitate
bihurtzen diren
ilusioak



SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43
BAINU ERAKUSKETA Zaruqaalde kalea. 52 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 42

FAGOR

